

hiruka

171. zenbakia
2021eko maiatza

BETIKO ETA ANDER DEUNA Ibilaldia 2021

«Auzolan izugarria izan da»

Iparra galdu gabe

COVID 19aren eraginez,
atzeratutako ekitaldiak

2021
Maiatza

1
Fernando Aire
"XALBADOR"

2
Mixel
LABEQUERIE

3
Mattin Treku
"MATTIN"

Hirurak maisuak!

Iparraldeko hiru kultur gile handi ageri dira argazkian: iaz, 100 urte bete ziren Fernando Aire "Xalbador" bertsolaria jaio zela; aurren, 100 urte Mixel Labéguerie abeslaria jaio zela eta 40 urte Mattin Treku "Mattin" bertsolaria hil zela.

16 GuraShow
FAMILIA OSOAREN ZAKO JOSTALDI MUSIKATUA

20 Iparreko eleak
LITERATURA

21 Biba kantua!
Getxoko Andrés Isasi Elektrik Konexioa +
Philippe De Ezcurra + Thierry Biscary
KONTZERTUA

22 Aire Ahizpak
KONTZERTUA

20 Erramun Martikorena
KONTZERTUA

Ekainean
21 Kalakan
KONTZERTUA

Ekitaldietan, atariko gisa, ALBEko kideek hiru kultur gile handien bertsoak kantatuko dituzte.

Getxo
KULTUR ETXEA

Getxo
KULTUR ETXEA

Getxo
KULTUR ETXEA

Bizkaia
KULTUR ETXEA

eke-icb
KULTUR ETXEA



Alde
KULTUR ETXEA

Alde
KULTUR ETXEA



Aurkibidea

- 4 Puntua eta kontrapuntua
- 5 Erretratua
- 6 Erandiogoikoko kutsadura, eztabaidan
- 14 Euskarari, atara kontuk!
- 15 Naizen elkarte
- 16 Larrubizi
- 17 Erraldoien lurraldean
- 18 Hirudika: Animaliak irudikatuz
- 24 Lehen/orain eta Urribitakora
- 25 Hezkuntza gehigarri berezia
- 32 «Auzolan izugarria da Ibilaldia antolatzea»
- 34 «Kalean dauden gazteek aukera bat bakarrik behar dute motibazioa lortzeko»
- 35 Musikhariak: Jokin Trikitixa
- 36 Naomi Matthews, Europako txapeldun
- 37 «Emakume txirrindulari gehiago ikusten dira»
- 38 Argazkilariaren txokoa
- 40 Hirukira Olgetan: umeentzako denbora-pasak
- 42 Usategi



hiruka

HIRUKA kooperatiba elkarte

Helbidea: Martikoena, 16, 2.a · 48992 GETXO
e-posta: hiruka@hiruka.eus
Posta-kutxa: 171
Telefona: 944 911 337
Publizitatea: Maria Gorostiola
Erredakzioa: Iker Rincon Moreno, Hodei Torres, Ander Zarraga
Diseinua: Artefakto
Administrazioa: Ziortza Merino
Zenbaki honetako kolaboratzaileak: Julen Nafarrate, Joanes Atxa, Bea Sever, Karlos Aretxabaleta Txapel, Eneko Landa, Asier Barruetaña eta Joseba Santxo.
Filmazioa eta Inprimategia: Gertu Inprimategia
Lege-gordailua: BI-2022-2014
ISSN: 2386-98-95
Ale-kopurua: 5.000
CC-BY-SA

Erakunde laguntzaileak



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du.



Kultura eta Hizkuntza Politika
Sailak (Hizkuntza Politikarako
Sailburuordetza) diruz lagundua.

Inoiz baino gehiago

KOLDO TELLITU Ikastolen Elkarteko lehendakaria



Ematen zuen ez zela iritsiko esleitu zizkigutenean, baina hor dago 2021eko Ibilaldia. Asko dira hori sortzen jarraitzeko arrazoiak: Bizkaiko ikastolen elkargunea izatea, ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematea, erronka berriei aurre egiteko baliabideak ematea... Ikastolako komunitatearekiko eta herriko elkarte eta erakundeekiko harremanetan sakondu nahi dugu Betikon eta Ander Deunan. Euskal kultura eta euskararentzat hain une zailean, ekarpena egin nahi izan dugu, beti bezala, plaza indartsu bat eskainiz.

Pentsa dezakegu ez dela garairik aproposena Ibilaldia egiteko, aitzitik, inoiz baino beharrezkoagoa da bere baloreak azalaraztea eta ekarpen berriak gizarteratzea.

Kiroletik, musikatik, antzerkitik, bertsolaritzatik, hezkuntzatik, aisialditik, komunikaziotik... Inoiz baino gehiago, sormenetik tiratzen ari gara, eta ikastolen sorreratik ezinbestekoak izan diren komunitateko kideen ahaleginak eta ekinak ere hala izango dira oraingoan.

Euskalgintzatik hainbat egitasmo aurrera eramaten ari gara, Ibilaldia horietako bat, eta herritarrek ezin diete bizkar eman: aparteko aukera dugu proiektu horietan parte hartuz, babestuz, erakusteko euskaraz bizitzeko nahia eta eskubidea dugula. Euskalgintza bizirik dagoelako, denok garelako euskalgintza.

Garbitzaileak grebara doaz

ISABEL LARRAZABAL GARCIA ELA sindikatua



Gorlizko Udalaren eraikinetako garbiketa-sektoreko langileek 2020ko martxoaren 2an greba deitu zuten, baina pandemiagatik bertan behera uztea erabaki zuten. Orain, berriro ekin diote, herriko kale-garbiketako langileekiko daukaten soldata-arrakalarekin amaitzeko eta baldintza duinak bermatzeko.

Enpresaren eta Udaleko ordezkarien artean hainbat bilera egin ondoren, azken hauek uko egiten diote inolako hobekuntza negoziatzeari. Nahiz eta 2020ko otsailaren 6ko osoko bilkuran esan zen pleguetan aurreko pleguarekin alderatuta % 9,9ko igoera jasotzen zen, kolektibo horren lan-baldintzak hobetzeko, errealitatea oso bestelakoa izan da. Gaur egun, esan daiteke diru publikoa ez dela helburu horretarako erabili, baizik eta, beste behin ere, enpresa pribatuaren esku geratu dela. Sektore feminizatu eta prekarizatu da eta bere lan-eskubideak etengabe urratzen dira. Garbitzea ikusezina da, nahiz eta bere lana funtsezkoa izan; Udalak berdintasunari buruzko bandera egiten duen bitartean, emakumeen eskubideen aldeko diskurtsoarekin, udal-eraikinak garbitzen dituzten emakumeei ez zaizkie lan-baldintza duinak bermatzen, beraien eta beren familien bizitzari kalte eginez.

Puntua eta kontrapuntua **Ibilaldia 2021**

Busti euskaraz

*Ohiko ibilaldia:
asmoa hori zen,
baina Covid-ak ez du
neurrik arintzen
Ikastolek, ordea,
badute aski sen
haurrak hezitzen eta
euskaraz bizitzen
lehenago ere jakin
dute egokitzen!*

**ARRATE
ILLARO
ETXEBARRIA**
Getxo

*Ikastolak lanean
gogo handiz jardun,
bihurtu asmoz gure
herriak euskaldun.
Ibilaldia aurten
ere hortan lagun,
euskaraz busti nahian
gu egunez egun,
orain kalakalata
bukatu dezagun!*

**INAZIO
VIDAL
GURRUTXAGA**
Getxo



Nerea Muñoz Aurrekoetxea Supermerkatuko langilea

«Ulertezina da orain esatea gure lana ez dela ezinbestekoa»



Osasun-krisiak lehen lerrora ekarri zituen iaz supermerkatuko langileak. Baina, erromotarrak aitortu digunez, euren lanak gutxietsita jarraitzen duela sentitzen dute.

TESTUA: JULEN NAFARRATE • ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Urtebete baino gehiago igaro da COVID-19ak sortutako osasun-krisiak gurean eztanda egin zutenetik. Iazko martxoan ezarritako konfinamendu zorrotzak ezohiko hainbat protagonista izan zituen, tartean, supermerkatuko langileak. «Oraindik ez dugu ulertzen zer gertatu zitzaion jendeari komuneko paperarekin». Berbak Nerea Muñoz erromotarrarenak dira. 28 urteko gazteak hiru urte daramatza Algortako supermerkatu batean lanean, eta pandemiak bete-betean harrapatu zuen bertan: «Iazko martxoan gertatu zena zoratzekoa izan zen. Egunero palet berri bat ekartzen genuen produktuekin, eta egunean bertan agortzen zen; mugak ipini behar izan genizkion jendeari». Gogoratzen duenez,

komuneko paperaren «psikosiaren» ostean, irina eta legamiaren txanda heldu zen: «Badirudi jendea konfinamenduan bizkotxo eta pastelak egiten ibili zela».

Titular asko bereganatu zituzten orduan supermerkatuko langileek: «Gogoratzen dut martxoan ez genuela maskararik ere erabiltzen kutxetan lanean geundenean. Gaur egun pentsaezina da hori». Baina titular eta txaloetatik harago, euren lanak gutxietsita egoten jarraitzen duela iritzi dio: «Ulertezina da orain esatea gure lana ez dela ezinbestekoa. Ni ez naiz txertoen oso lagun, baina lotsagarria da gu txertaketa-kanpainatik kanpo uztea, eta gauza bera dendari txiki eta ostalarien kasuan. Harreman zuzena dugu jendearekin, diruarekin...».

Bezeroengan ere aldaketak igartzen ditu Muñozek: «Jendea urduriago dagoela antzematen da». Baina, behintzat, alde positiboa ere bilatu nahi izan dio koronabirusaren agerpenari: «Lankideen artean oso giro ona dugu. Pandemia baino lehen ederto konpontzen ginen, baina krisiak gehiago batu gaitu oraindino. Ni horregaz gertatzen naiz». ◀

Elkartasuna kutsaduragaz amaitzeko





Erandiogoikoko biztanleek urteak daramatzate inguruko lantegietako kutsadura jasaten, eta hainbat estrategia probatu ondoren, egitasmo berria aurkeztu dute: «Erandion bizi, kutsadurarik ez!». Horren helburua da airea, lurra eta ura ikertzea, egon daitekeena antzeman eta berreskura daitezkeen guneak identifikatzeko. Hori guztia artearen bidez zabalduko dute.

TESTUAK: **ANDER ZARRAGA**

ARGAZKIAK: **ANDER ZARRAGA ETA AUZOKOA HERRIKOI ELKARTEA** ►

Dena 2014an hasi zela kontatzen dute Erandioko Auzokoa Herriko Elkarteko eta Herri Bideak Kate Barik elkarteetako kideek: «Parkean umeakaz geundela, bat-batean sekulako kiratsa etorri zitzaigun industrialdetik; beldur ginen, eta zerbait pasatzen zela pentsatu genuen, beraz, Udaltzaingora deitu genuen». Urte horretako azaroaren 18an, Erandiogoikoko auzokide batzuek gutun bat erregistratu zuten salatzen industrialdetik zetorren kiratsa, zarata eta ustezko kutsaduraz. Ordutik, hainbat mobilizazio eta denuntzia egin dituzte. Hala ere, deitoratu dute ordutik inguruko lantegietako ke isurketak eta zaratak etengabe hazi direla, eta edozein momentutan gerta daitezkeela.

Beraien kezkarik handiena da etxe ondoan daukaten Befesa Aluminio lantegiak noizbehinka isurtzen duen usain txarreko ke horrek zer daukan; jakin gura dute kutsagarria den eta nola-ko eragina duen beraien osasunean. Diotenez, sei urte daroztate estrategia ezberdinak bilatzen kiratsagaz eta zaratagaz bukatzeko, eta, orain, elkarte biek indarrak batu dituzte arazoaren azterketa sakona egiteko egitasmoa aurkezteko: «Erandion bizi! kutsadurarik ez!» izenekoa.

Kutsadura ez da gauza berria Erandion, inguruetan egon diren hainbat lantegiek lurra eta airea etengabe kutsatu dutelako hainbat urtez. Askok gogoratuko dute 1969 urtean, kutsaduraren aurkako manifestazio batean, poliziak hil zituen Josu Murueta eta Anton Fernandez kasu adierazgarriak. Kutsadura horren beste adibide bat da Asua ibaiarena: bere kilometro erdiko ibilbidea EAEko kutsatuenetakoa da; lindano, artseniko eta zianuro kopuru handiak ditu horrek. 2000an ibaia garbitzeko saiakera bat egon zen, baina horretan dragatu behar diren 70.000 metro kubiko lohi gordeko dituen edukiontzirik ez dagoenez, egitasmoa bertan behera geratu zen.

Elkarteetako kideek onartzen dute kutsadura asko murriz-

tu dela aurreko hamarkadakaz konparatuta, baina, ez ikusi arren, hor jarraitzen duela diote. Hain zuzen ere, Befesa Aluminio lantegia seinalatzen dute kutsadura horren iturri nagusi bezala, nahiz eta ingurumena kutsatzen duten beste enpresa batzuk ere daudela baieztatatu. Diotenez, noiz behinka, lantegiak usain korrosiboa eta eztarria zein begiak narritatzen dituen kea botatzen du bere zirrikitu guztietatik. Zarataren arazoa ere oso larria dela diote, goizaldeko orduetan iskanbila itzela ateratzen delako bertatik. «Usaina eta zarata etxe barrura arte sartzen zaizkigu», kexu dira.

Elexalde urbanizaziotik eta haur-eskolarik metro gutxira kokatuta dagoen lantegi horretan, Europako hainbat tokitatik ekartzen dituzten aluminiozko hondakinak eta hauts-hondarrak birziklatzen dituzte. Horiek desegiteko erabiltzen dituzten labeak irekitzen dituztenean ateratzen den kea eragiten ditu isuriak, «labeetako kea tximinietatik atera beharko litzateke egoki iragazteko, baina ez da hori gertatzen, eta lantegiko teilatuko zirrikituetatik ateratzen da zuzenean», deitoratu dute auzokideek. Hori kontutan hartuta, ondorioztatu dute ateratzen den kea ez dagoela behar den moduan iragazita, eta, beraz, kutsagarria izan daitekeela.

Orain arte hainbat salaketa eta mobilizazio egin dituzte egoera salatzeko, baina ez dute ezer lortu. Are gehiago, Befesak 2018an lantegiaren produkzioa areagotu zuen, talde ekologistek lantegi horrek Valladoliden duen fabrika hainbatetan salatu ondoren. Ordutik, kutsadura eta zarata hazi baino ez direla deitoratu dute erandioztarrek.

Bestalde, auzokoei jakinarazi dutenez, Erandioko Udalak adierazi zien arazoa ez dela bere eskumenekoa, baina neurketak egingo zituela; aldez, Eusko Jaurlaritzak arazorik ez dagoela erantzun zien. Horien arabera, Sangronizen (Sondika) eta Erandion bertan dauden neurgailuek ez dituzte PM 2,5 partikula kopuru handirik antzematen eta, beraz, ez ei dago kutsadura larririk. Horren harira, Marian Delgado Herri Bideak Kate Barik elkarteak kideak dio neurgailuek ez dutela kutsadura identifikatzen Befesak momentuko isurketa handiak egiten dituelako, eta tresnek orduetako batzuek bestekoa egiten dutelako, «beraz, jarioak ezarrita geratzen dira».

Elkarreetako kideek azaldu dute lantegira bisita ere egin zutela Jaurlaritzako ordezkariakaz, baina, momentu horretan, ekoizpena etenda zegoela eta, ondorioz, ez zela zarata edo kutsadura zantzurik egon: «Prestatuta zegoen bisita, eta lantegiak produkzioa geldituta zeukan, eta horrela gertatu da neurketak egin dituztenetan».



Befesa lantegiaren kea tximinietatik ez ezik, teilatutik ere ateratzen da askotan, diote

Herri Bideak Kate Barik

Irabazi-asmorik gabeko elkarte da, ingurumena eta bide publikoak defendatzen dituena. Diotenez, aspalditik daude kezkatuta Erandioko airearen, uraren eta lurrunen kalitateagaz; horregatik, herriko hainbat ibaitan analisiak egin dituzte.

Auzokoa Herriko Elkarte

Erandioztarrek osatutako auzo-elkarte da. Bere helburua da auzotarrek aurkeztu dituzten kezka eta arazoei konponbidea bilatzea. Gainera, jarduerak kulturalak, aisialdirako ekintzak eta auzolana bultzatzen dituzte, besteak beste.

BI ARDATZ KUTSADURAREN AURKA. Ikusita ez Udalak ezta Eusko Jaurlaritzak ere ez zutela arazoa eteten, 2020an elkarretaratzeak egiteari ekin zioten, eta Legebiltzarraren Ingurumen Batzordean agerraldia egin zuten abenduan. Momentu hartan, inflexio puntu bat egon zela diote: «Aurrez aurre eta sare sozialetan ikusten genuen jendea gero eta gehiago ari zela kezkatzen, isuriak areagotzen ari zirela, eta zerbait egitea erabaki genuen». Hala, elkarrekin «Erandion bizi, kutsadurarik ez!» proiektua aurkeztu zuten. Horren helburua da ingurumenaren neurketa fidagarriak egitea eta arte eta hezkuntza-erakunde bitartez herritarrak kutsaduraren inguruan kontzientziatzea. Horretarako, Erandioko EH Bilduk herrian garatzeko proiektuen lehiaketara aurkeztu zuten euren proposamena, eta baita irabazi ere. Hala, 13.500 euro eskuratu zituzten egitasmoa aurrera atera ahal izateko.

Nabarmendu dute euren asmoa ez dela lantegiak desagerraraztea, badakitelako hainbat lanpostu sortzen dituztela, «baita gure auzotarren artean ere», baina bizitzeko baldintza duinak eskuratu gura dituztela azpimarratu dute.

Proiektuak ardatz nagusi bi izango ditu. Alde batetik, landa-lana egingo dute, airearen, uraren eta lurrunen neurketen eta laginen bitartez jarduerak kutsagarriak identifikatzeko



nez hori da usain txarraren jatorria. AUZOKOA HERRIKOI ELKARTEA



Landareek airean dagoen kutsadura xurgatzen dute; hori baliatuko dute neurketak egiteko.

eta arnasten duten airearen konposaketa eza-gutzeko. Batez ere, Ingurumen Baimen Batera-tuari esker, industriak airera botatzen dituen partikulak aztertu gura dituzte, horiek pertso-nen osasunean izan ditzaketen eragina azter-tzeko. Neurketa horiek baliatuta, Eusko Jaur-laritzaren, Espainiako Estatuaren, Europaren eta OMEren legeriagaz alderatuko dituzte, le-gea errespetatzen den ezartzeko. Datu horiek ikertzeko, unibertsitateetako katedradunenga-na ere joko dutela adierazi dute.

Diotenez, Befesa lantegiko kutsadura fro-gatzeko, isurketa bat bete-betean harrapatu beharko lukete. Modu horretara, bere osake-ta ezagutu eta Eusko Jaurlaritzak protokolo bat abiaraziko luke, hori arriskutsua balitz. Hala ere, horretarako, neurgailuak jarrita izan behar dituzte isuria gertatzen den momen-tuan, eta, azaldu dutenez, hori ez da ez mer-kea, ezta erraza ere hori lortzea.

Beste alde batetik, hori guztia gauzatzeko eta arazoa ikusgarri egiteko, herritarren ba-besa ezinbestekoa dela uste dute; horregatik, artea erabiliko dute eraldatzeko tresna gisa. «Daukagun diruaren gehiena frogak egiteko izango da, horiek oso garestiak direlako; bai-na, zati bat erabiliko dugu jendeari ahotsa emateko, baita umeei ere, horiek direlako es-kolan abisua ematen duten lehenak». Besteak

Bizitzeko baldintza duinak
«Asmoa ez da lantegiak desagerraraztea badakigulako hainbat lanpostu sortzen dituztela, baita auzotarren artean ere; baina bizitzeko baldintza duinak gura ditugu»

beste, Gorritxo txantxangorriaren komikia ar-gitaratuko dute hori guztia azaltzeko; *artibis-moa* ere egingo dute, erakusketa ibiltari bat baliatuta kutsadura artearen bidez ikustaraz-teko; gainera, bideoak, irteerak eta beste hain-bat ekintza ere aurreikusi dituztela iragarri dute. Beste auzo eta herrietan ere ekintzak egi-teko asmoa dute erandiogoikokoek, kutsadu-rak mugak bereizten ez dituelakoan.

Era berean, Erandioko ingurumenaren mapa osatu gura dute, kutsagarriak izan dai-tezkeen industriak, kutsatutako lurzorua eta birsortzeko aukera duten eremuak identifi-katzeko. Helburu bikoitza dute: alde batetik, gune kutsatu eta garbien bereizketa egin, ku-tsadura erraz antzemateko; eta, bestetik, be-rreskuratu daitezkeen eremuak identifikatu.

MAILUKIAK KUTSADURA NEURTZEKO. Airearen Zaindariak izeneko ekimena baliatuta, 300 marrubi-landare banatu dituzte udale-rrian metal astunen presentzia detektatzeko. Ivercivis fundazioak martxan jarritako eki-men horregaz denbora jakin batean hostoetan pilatzen diren metal astunak ikertu daitez-ke, horien konposaketa eta kopurua jakite-ko. «Gasteizen sistema hau erabili zuten, eta *Green Capital* delakoak ez zituen hain emaitza berdeak izan», gogoratu dute ekintzaileek. ◀

Getxo Neguriko geltoki zaharra

Neguriko tren-geltokia osorik berrituko dute hurrengo hilabeteetan

Euskal Trenbide Sareak (ETS) Neguriko geltokiko eraikin zaharra osorik birgaitzeko lanak bideratuko ditu datozen hilabeteetan, Garraio Sailaren menpeko erakunde publikoaren kontratazio-mahaiak azken bileran proiektuari argi berdea eman ondoren. Iturriek zabaldu dutenez, lanotarako aurrekontua 244.153 eurokoa izango da, eta egikaritze-epea 6 hilabeteakoa.

Eraikinaren tipologia-, forma- eta egitura-elementuak errespetatuko direla nabarmendu dute ETSko arduradunek. Hala, besteak beste, estalkiaren posizioa ez da aldatuko, eta jatorrizko estaldura berrezarriko dute; dekorazio-elementuei dagokienez, jatorrizkoarekiko leiala izango dela ere adierazi dute. Haatik, Bizkaiko Foru Aldundiko Ondare Zuzendaritzak ezarritako irizpideen arabera, proiektuak jatorrizko eraikinaren parte ez ziren eremu bi eraistea jasotzen du, eta baita zurezko egitura eta arotzeria osoa kentzea ere, intsektuen eta onddo-izaera duten elementuen eragin handia jasan duelako.

Neguriko eraikin hori estilo neo-euskaldunekoa da, joan den mendearen hasieran eraikitakoa, Ferrocarriles Vascos konpainiaren San Nikolas-Plentzia linea inauguratu zenean. Gaur egun, ordea, ez du trenbide garraioagaz erlazionatutako inolako funtziorik betetzen; izan ere, Bilboko metroaren 1. linea inauguratu zenetik, haren funtzioak geltoki berrian integratutako beste higiezin batean gauzatu dira. Duela gutxira arte, baina, eraikinaren beheko solairuan estanko eta aldizkariak eta egunkariak saltzeko denda bat egon zen. ◀

Getxo Apirileko osoko bilkura

Hainbat ordenantza fiskal aldatuko dituzte

COVID-19ak ostalaritzan, lokal berrietan eta taxietan izan dituen, eta izango dituen, ondorioei aurre egiteko, hainbat tasa murriztuko dituzte, behin behinean.

Getxoko Udalaren azken osoko bilkuran talde guztiek onartu zuten, behin behinean, hainbat ordenantza fiskal aldatzea. Gogoratu dutenez, hala dago jasota Getxo Ekine 2021 planean, eta, horri esker, aurtun ostalaritzak ez du ordainduko terrazak jartzeagatik tasa, eta % 95eko hobaria izango du zaborren tasan. Taxiek ere ez dute geralekuen tasa ordainduko, eta % 50 murriztuko da jarduera eta instalazioen zerbitzuak jasotzeko eta establezimendua irekitzeko tasa.

Udal-gobernuak (EAJ eta PSE-EE) azpimarratu duenez, mugikortasunari ezarritako mugek eta itxiera sektorialek gehien kaltetu dituzten sektore ekonomikoei zergak arintzeko neurriak onartu dituzte. «Gainera, Getxo Ekine 2021 programan jasotako neurri hauen eta beste batzuen bidez, Getxon jarduera ekonomikora bideratutako lokal berriak ireki eta ezartzea erraztu nahi dugu», azaldu dute arduradunek. Hala, denera, 2021 urterako 285.000 euro dira ekonomia sustatzera bideratutako 27 ekintzen 5 milioi euro (gutxi gora-behera) horiei

batu behar zaizkienak. Alderdi guztiek nabarmendu dute Getxo Ekine 2021 planean jasotako konpromisoak eta akordioa, guztien adostasunez sinatu zena, oposizioko taldeak kritiko ere agertu diren arren. PPK, Elkarrekin Podemosek eta EH Bilduk aipatu dute neurriak berandu iritsi direla, eta ez direla nahikoa oraingo egoera konpontzeko.

TAO ETA ORDAINSARIAK. Bestalde, bilkuran onetsi da espedientea abiatzea lurgainean ibilgailuak araututa aparkatzeko zerbitzuaren (TAO) emakida adjudikatzeko, lau urtez. Oraingo kontratua irailaren 30ean bukatuko da, eta araututako eremuak 2022an hasiko dira funtzionatzen. Bitartean, hiru hilabeteko egokitze aldia egongo da.

Moldaketagaz, 1.400 aparkaleku izatetik, urte guztirako 3.875 aparkaleku izatera pasako da (gehi 521 5. eremuan). Ordutegia: astelehenetik barikura, 09:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara (zapatuetan, soilik goizez), salbu eta Ereaga-Portu Zaharra eremuan. Leku horretan, ordutegia 10:00etatik 20:00etara izango da. ◀

hiruka

HARTU BOLADA ONA GUGAZ. EMAIOZU BULTZADA ZURE NEGOZIOARI!

Zure enpresaren edo negozioaren urte osoko publizitate-kanpaina jaso gura baduzu ipini zaitez gugaz harremanetan: 944 911 337 / 688 811 368 • publi@hiruka.eus

Iñaki Bitxitegia

Montblanc, Longines eta TagHeuer agentzia ofiziala

Villamonte plaza 3 94 430 23 45 Algorta Telletxe 1 94 460 27 41

Sopela Kirol-instalazietako langileen protesta

Lanera bueltatzea eskatu dute kiroldegiko langileek

Sopelako kirol-instalazioetako 42 langilek ABEEen jarraitzen dutela salatzen eta egoera horregaz amaitzeko exijitu zuten atzo, apirilaren 29an, egin zuten elkarretaratzean.

Sopelako Udalaren osoko bilkura egin zen momentu berean, kirol-instalazioetako langileek elkarretaratzea egin zuten apirilaren 29an, udaltxearen atarian. Salatu zuten 2020ko martxotik 42 langile aldi baterako enplegu-erregulazio-espedita (ABEE) daudela.

Isabel Garcia ELA sindikatuko ordezkariek adierazi du alarma-egoerak jarduerak jarraitzea baimentzen diela; izan ere, enpresa berak kudeatzen dituen beste kiroldegietan lanean ari dira. «Ez dago jarduerarik enpresak dielako horrela dirua galduko lukeela, eta ez daudela horretarako prest», azaldu du.

Aldi berean, azkenengo osoko bilkuran, oposizioako taldeek –EH Bilduk, Elkarrekin Podemosek eta DB-Tuk– jarduerak berraktibatzen mozioa aurkeztu zuten. Gobernu-taldeak horren aurka bozkatu zuen, osasun-arrazoiak argudiatuta; hala ere, azken hitza enpresaren eskuetan dagoela argitu dute oposizioako alderdiek.

HITZARMEN BARIK. Sopelako Udalarik denbora bukatzen ari zaio kirol-instalazioen ku-



Kirol-instalazioetako langileak udaletxearen atarian bildu ziren. ELA SINDIKATUA

«Kirol-instalazioen udalekotzearen alde gaude, baldin eta lanpostuak mantentzen badira»

ISABEL GARCIA
ELA SINDIKATUA

deaketa nola egingo duten adosteko; izan ere, uztailaren 31n indarrean dagoen hitzarmena beteko da, eta oraindino ez dute lizitazio berria adostu. Oposizioak atzera bota zuen gobernu-taldeak aurkeztu zuen azken proposamena; izan ere, euren ustez, 15 urte gehi 5 urteko luzapeneko hitzarmenak debora gehiegi aurreikusten zuen.

Momentuz, maiatzeko osoko bilkurara arte dute adostasun batera heltzeko, bestela, kirol-zerbitzurik gabe geratuko direla iragarri dute. Bitartean, oposizioako taldeek erdi-bideko proposamena egin eta, gehienez, urte biko hitzarmena onartuko luketela iragarri dute. ◀

GetxoGasol

Urteko 365 egunetan gaude zabalik

- Garbiketa gunea
- Denda eta okindegia
- GNG tailerra
- Solaguren Jatetxea

☎ 944 301 500

📍 Getxo eta Berango artean

GetxoGason Euskararekin bat!

ARANTZA ETXEBARRIA
Hartz-Klinika

Odontologia orokorra
Ortodontzia

Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behe eskuina · ALGORTA

944 307 696

Erandio Gasolinoaren zerbitzua**Itsasadarra beren-beregi ezagutzeko bisita gidatuak eskainiko ditu**

Itsasadarraren ondare industrial eta kulturala ezagutzera emateko xedez, Erandioko gasolinoak bisita gidatuak egingo ditu maiatza, ekaina eta uztaillean. Konkretuki, zapatuetan egingo dira (maiatzak 8 eta 15, ekainak 5 eta 12 eta uztailak 3 eta 10), 11:00etatik 13:00etara bitartean. Gidari batek industria eta merkataritzaren inguruko argibideak emango dizkie bisitariei, Bilbok izan zuen lehendabiziko portutik, gaur egunera arte, hain zuzen ere. Irteerak ibilbide bi izango dituzte: itsasadarrean gora San Anton zubira arte eta Abrara norabidean.

Erandioko Udalgaz batera bultzatutako ekimen hau turismoaren eragile garrantzitsua izan daitekeela deritzo Jorge Gonzalez Enplegu, Turismo eta Berdintasun zinegotziak. «Iaz egiteko asmoa genuen, baina, COVID-19aren ondorioz, beste hainbat ekintza bezala, bertan behera geratu zen; orain baldintzak ematen direla uste dugu», zehaztu du.

Ekimen honegaz Erandioko gasolinoaren balioa eta herriaren iragan industrial ere nabarmendu gura izan dutela azpimarratu du zinegotziak. Gaineratu du ekimenak harrera ona izanez gero zerbitzua egonkortzeko asmoa dutela, data eta aukera gehiago txertatuz bere ibilbide eta zerbitzuetan.

Gasolinoak 25 pertsonentzako edukiera dauka, eta irteeretarako izen-ematea udalwebgunearen bitartez egingo da. Azaldu dutenez, txangoak elebidunak izango dira, euskaraz zein gazteleraz. Prezioei dagokienez, ateraldi bakoitzak 5 euro balioko ditu, 3 euro 18tik berakoentzat eta doan 4 urte baino gazteagoentzat. ◀

Berango Zuhaitzen mozketa**Arana inguruan «balio handiko» haritzak bota dituztela salatu dute**

Berango Lurraren Defentsan Talde ekologistak egin zuen ohartarazpena, eta Udalaren jokabidea gaitzetsi zuen. Alkateak iragarri du zuhaitz berriak landatuko dituztela.



Hainbat urte zituzten bederatzi zuhaitz moztu zituzten. BERANGO LURRAREN DEFENTSAN

Berango Lurraren Defentsan talde ekologistak ohartarazi zuen Arana inguruan hainbat urte zituzten haritzak botatzen ari zirela, eta, Udalaren jokabidea gaitzesteaz gainera, adierazi zuen babestu beharreko gune naturala dela hori. Esperoko ekintza zen; izan ere, Gune talde ekologistak zuhaitz-mozketa geldiarazteko helegitea aurkeztu zuen iaz. Ekologistek deitoratu zuten zuhaitz autoktono horiek moztea «bidegabea dela, duten balio handiagatik».

Berangoko alkate Anabel Landak argitu du «egin beharreko» ekintza izan zela hori, bertan babes ofizialeko 40 etxebizitzak eraikitze lanak hasteko. Gaineratu du enpresak baimena zuela zuhaitz horiek mozteko, eta «pena handiz» hartutako erabakia zela. Horren aurretik, udalerriko lorategiak kudeatzen dituen enpresako adituak kontsultatu zituztela jakinarazi du: «Ondorioztatu zuten, zuhaitzak lekuz aldatu arren, ezin zitekeela horien biziraupena ziurtatu, hobe zela berriak landatzea». ◀

MAIATZA 5, asteazkena EL PROCESO DE BURGOS, 50 Años IÑAKI EGAÑA idazlearen eskutik 19:00etan Villamonte Kultur Elkartean	19, asteazkena BURGOSEKO PROZESUTIK 50 URTE Ezpatari nagusitzen zaio herria ORTZI LETAMENDIA ANDONI OLARIAGA 19:00etan Villamonte Kultur Elkartean	3tik - 19ra BURGOS, 50. URTEURRENA Argazki erakusketa Villamonte Kultur Etxean	2tik - 30era EUSTAKIO MENDIZABAL, TXIKIA Bere heriotzaren inguruko esposaketa Abian Kultur Elkartean *ikusgai bakarrik faberna irekita badago.
instagram.com/abiankulturelkartea facebook.com/abiankulturelkartea			

Uribe Kosta Euskaraz jolasteko ekimena

Bueltan da Uribe Kostako Euskaraz Olgetan egitasmoa

Martxan da berriro ere Euskaraz Olgetan egitasmoa, Uribe Kostako Zerbitzu Mankomunitateak eskualdeko herrietako familien artean euskaraz bizi eta goatzeko jardura dibertigarriak eskaintzen dituen programa. Egitasmo horren helburua da familietan euskararen erabilera sustatzea, eta xede horri eutsiz, tailerrak, ikuskizunak eta ekintza ludikoak antolatu dituzte.

Pandemiaren eraginez, Mankomunitateko Euskara Zerbitzutik adierazi dute ahalegin handiak egin dituztela programazioa landu eta egungo testuinguru berezira egokitzeko. Hala, eskualdeko umeek eta gurasoek maiatzean, ekainean, irailean eta urrian euskara praktikatzen eta ikasten jarraitzeko aukera izango dute. Hala ere, aurtengo Euskaraz Olgetan egitasmoaren funtzionamen-

Aurtengo Euskaraz Olgetan egitasmoaren funtzionamendua desberdina izango da, etxetik goatzeko aukera paregabea eskainiko baitute.

dua desberdina izango da, etxetik goatzeko aukera paregabea eskainiko baitute. Hala, maiatzean hasita, astero bideo berri bi igoko dira www.euskarazolgetan.eus webgunera, aste bitan ikusgai egongo direnak. Bideo horiek familia osoari zuzendutako edukiak landuko dituzte; jarduerak familiaren gustu eta kezketan pentsatuta egongo dira, elkarregaz gozatu ahal izateko.

Beste batzuen artean, egingo diren ekintzetatik azpimarratu gura izan dituzte: «Udaberri Gozoa» sukaldaritza tailerra, «Buztin polimerikoa» birziklatzeko tailerra, tailer artistikoa, «Esku bionikoa» STEAM tailerra, meditazioa eta *Ze demontre!* umore ikuskizuna. Esan bezala, ikus-entzunezkoak aste bitan egongo dira ikusgai webgunean; azken nobedadeak Instagram eta Facebook sare sozialetan ere ikusi ahal izango dira. ◀

ARTOLOZAGA

Tailerrak

ANAIK

Mekanika · Karrozeria · Elektronika

**Etxean zure kotxea jasotzeko zerbitzua eskaintzen dugu!*

PRESTATU ZURE KOTXEA UDARAKO:

hozte-sistemaren egoera aztertu	gurpilen presioa ikusi	aire girotua errebisatu
haizetako eguzkitakoa ipini	eroan beti ura	arropa erosoagaz gidatu

**ITV-a gainditzeko irizpideak ematen ditugu!*


PANDEMIAN KOTXEA GELDI IZANGO BADUZU:

Autoa astean behin **martxan jarri** edo **bateriaren borne bat** deskonektatu.

Aldian behin, **pneumatikoen** posizioa aldatu.




Bidaia on!

talleresartolozaga.com

946 763 814

Gatzarriñe Kalea, 42 SOPELA

615 182 122

Euskarari, atara kontuk! Joanes Atxa Olaiz

Leioako hizkera, lore batetik bestera



Itsasadarretik hasi eta larre zabaletaraino hedatzen den hizkera dugu mintzagai oraingoan. Uste baino sekretu eta bitxikeria gehiago gordetzen ditu Leioako euskarak, eta, oraingoan, argia emango diegu misterio horiei.

Lagun berri bat egin dut aurren, Luis: Leioako Luis Maria Mendieta. Elorte baserrian jaio zen, gaur egun EHUKo campusetik gertu dagoen baserri handi batean. Luis jaio zenean, ordea, han ez zen unibertsitaterik, baizik eta abere eta baratze inguratutako beste hainbat baserri: Alkatene, Larrabarri, Bidortza... Etxe-izen horiek guztiek garai bateko beharrak gogorarazten dizkiote. Auzoko etxeetara joan ohi zen, bere aititerek batera, ortuetako lurra goldatzera, lantzera.

Solasaldi bat edo beste izan ditugu azken hilabeteotan, eta, horietako batean, zera esan zidan Luisek: «Egun baten esan iesten aititek: *jon ber du labraten eta koiten kenpulek*». Begien parean nuen eta, Leioako euskara! Esaldi bakar batean, Luisek Leioako euskararen misterio gehienak agerrarazi zizkidan.

Jadanik badakigunez, gure inguruko hizkerekin partekatzen dituen hainbat ezaugarri orokor ditu Leioako euskarak. Horietako bat da *koiu* aditza, *hartu* esan nahi duen berba. Hala ere, Uribe Kosta eta Txorierriko hizkeren artean dago Leioakoa, eta aniztasun hori erraz entzun dezakegu gure esaldian.

Batetik, Getxotik Lemoizerako kostalde osoan bezala, *joan* aditza uzkuritu eta *jon* ahoskatzen da. Hala esan zion Luisen aititek lan-



Leioako Elorte baserria

Gaur egun EHUKo campusetik gertu dagoen baserri batekoa da Luis Maria Mendieta, eta horrek erakutsi dizkigu zeintzuk diren Leioako euskararen misterioak.

tzera *jon* behar zutela, eta ez omen zen lan erraza! Bestetik, /t/ eta /l/ letrak, Uribe Kosta ez bezala ahoskatzen dira Leioan. Kostaldean goxotasuna eman ohi zaie, *aitxitxe* eta *kinpulle* bezalako hitzak sortuz, eta, Leioan, *aitite* eta *kenpule* entzun ditugu, bi kontsonante horiek inolako aldaketarik gabe erabiliz. Hala ahoskatzen dira Txorierri osoan ere, Larrabetzuraino, besteak beste.

Uste genuena baino misterioitsuago agertu zaigu Leioan egiten den euskara, eta dialektoak aztertzen ibiltzen diren ikerlariak ere, nahikoa lan izaten dute hizkera horiek sailkatzeko. Leioak, Erandiok eta Loiuk osatzen duten eremuak kostaldea eta barnealdea lotzen ditu. Era berean, eremu horretako hizkerak, Uribe Kosta eta Txorierri lotzeko zubi-lanak ere egiten ditu; txoko batetik zein bestetik, udaberriko loreen gainean dabilen erlea balitz bezala, behar adina lore-hauts hartzen du.

Denboraren poderioz, baliteke Leioako euskarak gero eta kostaldeko ezaugarri gehiago biltzea, edo barnealdeko ezaugarriak bereganatzea, edo, orain arte bezala, bietatik hartzea. Etorkizunak dakarrenari itxaron beharko diogu, bada, Leioako erleek gustukoen dituzten loreak zeintzuk diren jakin nahi badugu. ◀

KALITATEZKO HEZKUNTZA EUSKARAZ

BETIKO IKASTOLA

www.betikoikastola.eus
Artatza auzoa, 84. (48940) Leioa
info@betikoikastola.eus
94.464.23.64

KONFIANTZAZKOA ETA HURBILA

- 0-16 adin tartea.
- Euskara eta euskal kultura onarri.
- Ingelesa Haur Hezkuntzatik.
- Guraso kooperatiba.
- Herritarra eta eraldatzailea.
- Autobus zerbitzua 2 urtetatik aurrera.
- Bertako janaria, ikastolan sukaldatua.
- Proiektu berritzaileak: Konfiantzaren pedagogia, EKI, KIVA...
- Irakasleen etengabeko prestakuntza eta inplikazioa.

ikastolenkartea

Naizen adingabeko transexualen familien elkartea Bea Sever

Trans legea

Estatu mailan, pertsona transexualen eskubideak bermatzen dituen legerik ez dago, erkidego gehienetan, ordea, bai. Bilbon bizi denak Burgosekoak baino eskubide gehiago ditu, administrazio autonomikoari begira izena eta sexu aipamenaren aldaketa barne.



Azkenaldi honetan, Espainiako Estatuko Trans legearen proposamenak hautsak harrotu ditu. Lege horren xedea da jaiotzean sexua era zuzenean esleitu ez zitzaizen pertsonen eskubideak bermatzea, akats horren ondorioz, beraien askatasunak mugatuta baitituzte. Aipatutako legearen zirriborroa osatzeko pertsona transexualen eta horien familien Estatuko elkarteak egon gara, hainbat aditurekin batera, zortzi hilabetez, Espainiako Berdintasun Ministerioak deituta. Bertan jasotakoak ez zaizkigu bat-batean bururatu, aspalditik genituen aldarrikapenak dira, eta despatologizazioa eta autodeterminazioa dituzte oinarri. Horiek dira, hain justu ere, gatazka sortu duten puntuak, baita aurreko HIRUKAn aipatutako adin txikikoen eskubideak ere.

Urte askotako borrokaren ostean, 2018an, Munduko Osasun Erakundeak buruko nahasmenduen ataletik atera zuen transexualitatea. Horrez geroztik, eta patologia ez denez gero, legeak ez luke txosten medikurik eskatu behar joasotzen dituen eskubideak bermatzeko.

Horrekin lotuta dago autodeterminazio eskubidea. Zenbaitek autodeterminazioa nor garen hautatzea bezala ulertu izan dute, baina autodeterminazioak nire identitatearen inguruko erabakiak kudeatzeari egiten dio erreferentzia, dagoeneko banaizena (eta ezin

Gaur egun, pertsona transexual batek erregistroan izena eta sexu aipamena zuzendu nahi baditu, 18 urtez gorakoa, nazionalitate espainola, bi urteko hormonazioa eta buruko nahasmendua duela dioen txosten medikua aurkeztu behar ditu.

dut ez izan) zelan bideratzen dudan neuk erabakitzea, hain zuzen ere. Ezin dut erabaki nor naizen –bestela, inork ez luke erabakiko biderik latzena–, baina erabaki dezaket naitzena bezala zelan garatu, eta baita administrazioarekiko harremana zelan kudeatu ere, kanpoko inork –mediku zein psikiatra– nigratik erabakitze beharrik gabe.

Gaur egun, pertsona transexual batek erregistroan izena eta sexu aipamena zuzendu nahi baditu, 18 urtez gorakoa, nazionalitate espainola, bi urteko hormonazioa eta buruko nahasmendua duela dioen txosten medikua aurkeztu behar ditu. Araudi horrek adin txikiak eta migratzaileak kanpoan uzteaz gainera, derrigorrezko hormonazioa ezartzen du eta patologizatzen du. Erkidego gehienetan, berriz, autodeterminazio eskubidea onartuta dago, eta erraz alda daitezke datuak eskumenen mailan. EAEn, adibidez, kiroldegiko txartela, Osakidetzakoa, Hezkuntzako zerrendak, Lanbidekoak... arazo barik molda daitezke. Gauza bera munduko 25 herrialdetan ere, eta ez da ezer gertatu. Horixe izan beharko lukete buruan bestelako interes politikoei bultzatuta zabalduko gezurrak sinetsi dituztenek. Pertsona transexualek ez diote direna izateari utzikiko NAN agiria aldatu gabe izateagatik, baina bizitza zailagoa izango dute. Noiz izan da balizko lege iruzurra eskubideak ukatzeko aitzakia? ◀

ibilaldiaren denda




www.ibilaldia.eus/online-denda

Sartu, ikusi, erosi. Etxera bidaliko dizkizuegu aukeratutako produktuak





Larrubizi Karlos Aretxabaleta Txapel

Zer, Nori, Nork

«Ni izan beharko nintzateke bere azpian dagoena, bere zaporeak dastatzen eta ez beste zorria. Momentu batez nigana begira jarri da nire ikaskidea, artega, zelatan nagoela jakitu balego bezala, baina loaren plantak egin ditut».

Nire euskaltegiko fitxaketa eta irakaslea su eta gar ari dira ia-ia nire aldamenean, ondoko ohean, eta ni mugitu ezin. Puta seme horrek engainatu nau, zelan joan natzaio ba lehen aholku eske? Nire barnean adore apur bat aurkituko banu, altxatu, irakasleari paparretik oratu eta ezkerreko galanta emango nioke. Mozkorraldiak eragindako zorabioak, ordea, ez dit uzten. Behintzat, agerian dagoen irudi bakarra Luziaren gorputz liraina da. Gaitz erdi.

Titi perfektuak ditu, muxika eder batzuen tamainakoak; halaber, zerri horren gainean trostan dabilenez xalotasunez mugitzen zaizkio. Aitortu behar dut, bai, irudi lizun horrek izugarri kitzikatu nau. Ez naiz ni hirukoteak egiteko zalea, baina neskatoak eskatuko bali, zelan ezezkoan egon. Orduantxe intzirika hasi da neskatoa eta bere eskua klitorira hurbildu du, supituan etorri zaion estasiari heldu nahiko balio bezala. Orduantxe ferekatzen hasi da bere motxina; hasieran emeki, mitxoleta bat laztantzen arituko bailitzan; gerora, aldiz, bortizki igurtzi du, eta urrun samar nagoen arren, hazi jariora nire ohetik entzun ahal izan dut.

Ni izan beharko nintzateke bere azpian dagoena, bere zaporeak dastatzen eta ez beste zorria. Momentu batez nigana begira jarri da nire ikaskidea, artega, zelatan nagoela jakitu balego bezala, baina loaren plantak egin

Orduantxe ferekatzen hasi da bere motxina; hasieran emeki, mitxoleta bat laztantzen arituko bailitzan; gerora, aldiz, bortizki igurtzi du, eta urrun samar nagoen arren, hazi jariora nire ohetik entzun ahal izan dut.

ditut. Eskerrak, ez dut espektakulua galdu nahi. Handik gutxira kamasutrako amazonas jarrera aldatu dute, eta neskatoa lepoz jarri zaio irakasleari. Ni, bestela, bero-bero nago, eta nire ikaskidearen ipurdia «dantzan» ikusi dudanean, erabat eszitzatu naiz. Dagoeneko berdin dit nire presentzia ohartzen badira, izan ere nire izaren azpian larruzko panpinari jotzen diodan kanpaikada bakoitzarekin ni neu ere plazeretik orgasmotik, gero eta hurbilago bainago. Irakasleak kale egin du aspaldi, baina bere zakilak zutik darrai; antza, Viagra bidaide on-ona da hirurogei urtetik gorakoe-kin.

Ni, ordea, topera nago, gutxi falta zait, baita Luziari ere. Bere ipurdiaren erritmo pausatua plazer kalanbreekin bat egiten du, nabari zaio, izugarri gozatzen ari den seinale. Azkenean irrintzi mutu batek amaiera eman dio zamalkadari, bestelako astinaldi edo kalanbre batzuek nire plazeraren amaiera adierazi duten istant berean. Ederra izan da, izan ere biak aldi berean heldu baikara. Irakaslea berehala zurrungaka hasi da, eta Luziak bere arropak batutakoan oin-puntetan alde egitera dioala nigana hurbildu eta belarrira xuxurlatu dit: hurrengo barnetegian begiratu beharrean, zer-nori-nork barruraino barneratzen lagunduko al didak? Galderak lekuz kanpo harrapatu nau, eta ordutik galdezka nabilkio neure buruari nork, nori, zer? ◀

SAN NIKOLAS IKASTOLA

1-2 URTEKO HAURENTZAKO IZEN EMATEA

APIRILAREN 16TIK >>> MAIATZAREN 21ERA

***MATRIKULA EGIN EZ DUTENENTZAT**

SANIKOLAS.EUS

Areneazpi Kalea, 15 (48991)
Getxo, Bizkaia



Erraldoien lurraldean Eneko Landa

Txikitasun konplexua

Kike Amonarrizen Tribuaren Berbak telesailean, euskararen tamaina munduko 6.000 hizkuntzekin parekatu du, batetik hamarrerako eskalan. Euskal Herriko hiriburuetatik barrena hizkuntzaren tamaina zeinek asmatuko ibili ostean, inork ez dio erantzun zuzenik eman.

Gehienek, hizkuntzaren tamaina bosteko mailatik behera kokatu dute; bakar batek ere ez du goiko partean jarri. Kike Amonarrizek denak aho bete hortz utzi ditu euskara bigarren koskan kokaturik dagoela aditzera eman dienean. Bertan direnak, aurkezle bihurriaren broma bat delakoan, trikimailuaren zain geratu dira, mesfidati; baina hark emandako azalpenaren ostean, ulertu dute. Berez, maila bakoitzean 600 hizkuntza –guztira 6.000 dira, baina hamar mailatan zatiturik– daudela azaldu du euskaltzaleak; hortaz, 2. mailan egonda, lehenengo 1.200 hizkuntzen artean da gurea. Euskaldunak milioi bat inguru garela gogoratu du aurkezleak; horregatik, ulertzekoa da hain goian sailkatutik egotea euskara.

Pozarren hasi dut goiza, gure hizkuntza munduko tontorretik hain gertu ikusita. Berria lankideei kontatzen ari nintzaielarik, oihartu naiz Amonarrizen azalpenaren arabera, euskarari lehenengo maila dagokiola. Izan ere, milioi bat hiztun dituzten hizkuntzak 500 baino ez dira.

Elkarrizketatuek oso txiki ikusi dute euskara; eta, aurkezleak berak ere ez gaitu gure lekuan kokatu. Zein da, bada, euskaldunok daukagun gutxiagotasun konplexu horren zergatia? Munduko etxe orratzik handienetakoe inguratzen dituzte gure herriak; eta ez, ez naiz ari Burj Khalifa edo Empire Sta-

10

mailatan banatu ditu Kike Amonarrizek munduko hizkuntzak.

600

hizkuntza daude maila bakoitzean; beraz, 6.000 hizkuntza hartu ditu lan horretarako Amonarrizek.

2. maila

hortxe kokatuta dago euskara: gehien erabiltzen den lehenengo 1.200 hizkuntzen artean.

tes-en gainean: ingelesa eta gaztelaniari buruz baizik. Zorritzarrez, munduko hizkuntza indartsuenen artean bizi da euskara, etengabeko biziraupen-borrokari. Hedabide espainolek eta internazionalak gero eta gehiago zokoratzen dituzte gure betiko telebista-kateak, eta euskara eskola girora murrizten ari da gero eta gehiago. EAEko hamar biztanletik seik baino gehiagok euskara-ezagueraren bat dute; erabili, ordea, % 30ek baino ez; egoera oso kezagarria da.

Hezkuntza Sailak urtero jakinarazten du heziketan eta, bereziki, euskarari xahutzen duen dirutza. Esfortzu ekonomikoek bere eragina izan dute, zalantzarik gabe: izatez, euskaldunen kopuruak etengabe egiten du gora oraindik; baina erabilerak, ordea, beheranzko bidean jarraitzen du. Ez ote ditugu euskara-programak edota proiektuak birplanteatu behar? Euskal Giroitze Barneetegietan, esaterako, jarreretatik eta emozioetatik abiatuta lantzen dute euskara: gazteek hizkuntzarekin dute erlazio afektiboari bultzada bat ematea dute helburu. Ez al da aplikagarria hori eskolan? Ez al da harritzekoa, urtetan erraldoien artean bizirik iraun ostean, dugun gutxiagotasun konplexua?

Egundoko ahalera dugu, (hala diote aipaturiko datuek) gure jarrerari eta autoestimutik faltan dago arazoa, besterik ez. Ahaldundu gaitezen, bada. ◀



%30 EKO

DESKONTUA BETAURREKO GUZTIETAN

30% dto. en todas las gafas graduadas

Kontsultatu baldintzak dendan / Consulta condiciones en tienda



Campus de Bizkaia UPV/EHU planta baja
Edif. Facultad Ciencias Sociales y de la Comunicación
LEIOA T. 946 05 16 30

Mayor, 10 (Las Arenas)
GETXO
T. 944 80 10 17

Telletxe, 7
GETXO
T. 944 60 13 90

Animaliak irudikatuz

Igor Sarralde (Algorta) eta Asier Gorostidik (Bilbo) argitaratu duten Euskal Herriko animaliak liburuko ilustrazioak dakartzagu oraingoan. Haien hitzetan, «gure inguruko fauna ezagutzen eta zaintzen ikasten den bitartean, bai haurrei bai nagusiei erakargarri eta irakurterraz suertatzen den liburua egiten saiatu gara». Horretan topatu ahal diren gutxi batzuk ekarri ditugu orriotan. Era berean, 50 animalien ezaugarri eta informazio berezia topatuko duzue haien liburuan murgiltzean, baita nola identifikatu edota bilatu animaliak ere haien habitatean, bestea beste. Goza ezazue.

TESTUA ETA IRUDIAK: IGOR SARRALDE ETA ASIER GOROSTIDI ►

Okil beltza (*Dryocopus martius*) Pizido

Familiako kide handiena dugu, ia guztiz beltza da, buruan duen txapel gorria izan ezik. Beste okilek bezala, enborretan zuloak eginez bilatzen du jana eta egiten du habia, baina, araldian, enborrean baino gehiago ihartutako adarretan jotzen du bere mokoaz, soinua hobeto entzun dadin. Pasa den mendean Euskal Herri osoan ia ez zegoen okil beltzik, Pirinioetako eremu gutxi batzuetan izan ezik, baina, zorionez, bere eremua zabalduz joan da, eta, orain, Euskal Herri osoan dago.





Arrabioa

(*Salamandra salamandra*)

Salamandrido

Ikusteko aukera edukiz gero, ez duzu beste animalia batekin nahastuko, kolore hori eta beltza baitute bereizgarri. Orokorrean, kolore horiek animalia pozoitsuak edo arriskutsuak direla adierazten dute, eta arrabioaren kasuan ere hala da, azaletik substantzia pozoitsu bat isurtzen du, inork jan ez dezan.



Euskal balea

(*Eubalaena glacialis*)


Balenido

Gure kostaldean aspaldi hain ugaria zen ugaztun hau arrantzaleen helburu bihurtu zenean, hainbeste ehizatu zuten, ezen ia desagertu baitzen. Azken balea Orion hil zuten, 1901. urtean, bertso ezagun batean azaltzen den legez. Gaur egun, oraindik, oso egoera larrian dago, eta ez da erraza halako bat ikustea, baina, ikusiz gero, badago beste baleetatik bereizteko era bat: bizkarrean ura kanporatzeko zulo bat izan beharrean bi ditu, eta, ondorioz, botatzen duen txorrotak «v» itxura du.

Martin arrantzalea (*Alcedo atthis*)

Alzeido

Erreka baten hondoan bat-batean distira urdin bat ikusiz gero, erreparatu ondo, oso litekeena da martin arrantzale bat izatea. Ibaien inguruko adarretan egoten dira, urari begira, bertan topatzen baitute janaria, arraintxoak batez ere, eta, baten bat ikusten dutenean, gezi baten moduan joaten dira haien atzetik, uretan murgilduz eta berriro ere uretik ateraz; zortea izan badute, janaria mokoan dutela ikusiko dituzu.



Ur saguzarra (*Myotis daubentonii*) Bespertilionido

Gertutik ikusiz gero, belarri motzak ditu ezaugarriarik nabariena; baina bereizteko erarik egokiena ingurura erreparatzea da. Saguzar hau oso urzalea da, eta ibai edo putzuetatik gertuko basoetan bizi da. Janaria, intsektuak batez ere, uretan harrapatzen du: hegan doala hankak uraren gainazaletik pasatu, harrapakinak jaso, eta, gero, atzaparrak ixten ditu. Airean jaten ditu harrapatutako intsektuak, hegan egiteari utzi gabe.



Apo lasterkaria (*Epidalea calamita*) Bufonido

Lasterketa laburrak eginez mugitzen da, eta hortik datorkio izena. Azala garatxo bat du; orban berdexkak ditu, eta, erdialdean, marra argi bereizgarri bat du. Begiak bereziak ditu: marra beltz bat, hondo berde deigarri baten gainean. Arrautzak lokarri likatsu baten barruan uzten dituzte, putzuetan. Eme bakar batek 5.000 arrautza jar ditzake.





Hontz zuria

(*Tyto alba*)

Titonido


Nahiko erraz bereizten da beste hontzetatik, kolore argiari esker; horrez gain, bihotz formako burua du. Zuloak eta arrakalak bilatzen dituzte arrautzak erruteko, baina ez dute habiarik egiten, baserrietako ganbarak edota elizetako kanpandorreak erabiltzen dituzte sarri. Noizean behin intsektuak, anfibioak edo hegazti txikiagoren bat harrapatzen baditu ere, batez ere saguek osatzen dute bere dieta, hontz zuri heldu batek gutxi gorabehera hiru sagu jaten ditu egunean.

Gorbatadun sugea

(*Natrix natrix*)

Koloubrido

Gorbatadun sugearen bila bazabiltza, hurbildu ibaietara, putzuetara, lakuetara, ura gustatzen zaiolako eta hor aurkitzen duelako bere jaki gogokoena: igelak eta apoak. Noizbait suge gorbatadun bat ikusten baduzu eta ezin badu ihes egin, hildakoarena egingo du, geldi-geldi, ahoa zabalik, eta kirats nazkagarri bat isuriko du, bere antzezlan sinesgarriagoa izan dadin. Pozoirik ez duenez, horixe du defentsarik onena.




Katagorria

(*Sciurus vulgaris*)

Eszirido

Basoan korrika, enborretatik jaisten edo adarretan jauzi ikargarriak eginez, etengabe aritzen da elikagai bila: intxaurrak, ezkurak, pinaburuak. Lur azpian ezkutatu ohi ditu negurako hartutako fruituak; dena dela, gero ez ditu horiek guztiak aurkitzen. Beraz, haritz, gaztainondo eta beste zuhaitz batzuen haziak landatzen dituela esan dezakegu, eta, hortaz, mesede egiten dio janaria eta aterpea ematen dion basoari.



Itsas zakur grisa (*Halichoerus grypus*)

Fozido

Nahiz eta ugariagoak diren iparraldean, gure kostaldean ere ikusten dira, noizbehinka, negu aldean. Euskal hondartza eta portuetan ikusten direnak gazteak eta esperientzia gutxikoak dira. Baten bat ikusiz gero, hobe ez hurbiltzea eta jarraitzen uztea.



Satitsua (*Crocidura russula*)

Soridazido

Ugatzun guztien artean txikiena da, baina, kontuz, oso erasokorra izaten da, eta beldurtu beharrean hozka egiten saiatuko da. Sudurra, tronpa itxurakoa, nahiko handia dute, eta usaimena fina. Kumeak dituztenean, amak ilara bat osatzen du bere atzean, eta satitsu txikiek, aurrekoaren isatsari helduta, tren moduko bat osatzen dute.



Lehen/Orain **Arriluze, 1955**ean



ITURRIA: GETXOKO LIBURUTEGIAK



ITURRIA: TXEMA GARCÍA

Urubitakora



ALBE

**Algortako
Bertsolari
Eskola**

TESTUA
Nahikari Ayo
Acebo

DOINUA
Bazkalosteko
kafea

ARGAZKIA
Hodei Torres

Sorginak

Eguzkiak alde egindakoan
hutsik daukagu larrea,
egurra batu ta sua piztuz
gailenduz usain errea.
Batu gaitzen gure sorginei
eginez gorazarrea:
dantza, irrintziak, zorarena
algara eta barrea;
presta gaitzen, goza dezagun
has dadila akelarrea!

Ezkutuan ta zuhaitz artean
ibiltzen ziren horrela,
ukenduak egiten bazuten
jakinduria itzela.
«Sorgin madarikatu horiek
akabatu ditzatela!».
Sorgin ehiza abiatu zuten
hau bai gizarte ustela...
Lehen debeku ugari zituzten
orain gurean bezela.

Inkiszioak hartu zuen
XVII. mendea,
Zugarramurdi hedatu egin zen
sekulako atsekabea.
Hainbeste emakume epaituta
erretzea zen bidea?
Kontatu ziguten historia
ez zen horrela, ordea,
egitik gaur dakigunerarte
itzela dugu alde.

Etorkizuneko bide berriei aukerak zabaltzen



Erronka berriak aro berrirako

Post-pandemia garaietarako prest daude gazteei etorkizun erakargarri bat eskaintzeko, haien gaitasunak kalitatezko prestakuntzaren bidez garatzen laguntzeko.

Mundua aztoratuta izan dugu azken urte honetan. Etxeratzeak direla, itxierak direla, murrizketak direla, urte gogorra izan dugu. Dena den, badirudi zientziari esker, tunel beltz honen irteera ikusten ari garela.

Tunelaren beste aldean aurkituko duguna ez dakigu zer izango den, baina adierazle guztiek aurreikusten dute krisi sakon bat datorrigula, bai enpleguaren aldetik, bai hazkunde ekonomikoaren aldetik eta, nola ez, baita ingurumenaren aldetik ere.

Testuinguru horretan, argi dago erantzunak globalak izan behar direla, baina pertsona edo erakunde bakoitzak bere eremuan eraginez. *Think globally, act locally.* Arlo espezifikoetara joanda, badirudi transformazio digitala eta iraunkortasuna izango direla, European behintzat, garapena ziurtatzeko erabiliko diren erremintak. Hori guztia kontutan hartuta, hurrengo urteetarako erronkak finkatzen ari dira Txorierri, arlo desberdinetan:

- Prestakuntza espezializatua garatu arlo desberdinetan (Robotikan, Transformazio digitalean, Marketinean...), formakuntza duala bultzatuz.

- Pertsonen gaitasunak hobetu enplegurako formakuntza plan egokiak garatuz (*upskilling & reskilling*).



www.txorierri.net

ATE IREKIAK

**Lanbide
Heziketako astea
egingo dute
maiatzaren 25, 26
eta 27an.**

- Aldaketa metodologikoa kalitatezko formakuntza ziurtatzeko.

- Garapen jasangarriko helburuekin bat egin, eta euren baloreak kontutan izanda, profesional arduratsuek lortzea (Ingurumen arloan, Diseinu eta Produkzio mekanikoan...). Lan egiteko prest, berton edo munduan, beste batentzat edo bere kontura.

- Eta, era berean, emakumearen presentzia areagotzea bereziki arlo industrialetan.

Txorierri garatutako proiektua ezagutu nahi baduzu Lanbide Heziketako astean parte hartu ahal izango dute maiatzaren 25, 26 eta 27an. Edukierak direla eta, izena ematea beharrezkoa izango da euren webgunean.



Gure hezkuntza-eskaintza

BATXILERGOA

- ZIENTZIAK Batxilergoa ('D' eredu)

ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Mekanizazioa

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

- Salmenten eta Merkataritza Esparruen Kudeaketa
- Automatizazioa eta Robotika industriala
- Telekomunikazio eta Informatika Sistemak
- Diseinua Fabrikazioa Mekanikoan
- Produkzioaren Programazioa
- Ingurumen Hezkuntza eta Kontrola

Langile zein langabetuentzat
ikastaroak
Enpresentzako zerbitzuak

ATE IREKIAK

Kontsultatu datak eta eman
izena gure webgunean:

www.txorierri.net

94 403 40 60

Esperientziaren bermea

Fadura LHII ikastetxeak 40 urte baino gehiago daroatza kalitatezko zerbitzua eskaintzen, eta eskualdean enpresen eta inguruaren erreferentzia izatea lortu du. Gazteak gizatasunez eta arlo teknikoan prestatzea da helburua, jendartean integra daitezen bai lan-mundura bai beste ikasketetara sartzeagaz batera. 1980tik daroa ikastetxeak eskaintza zabala ematen lanbide-heziketan: goi- eta erdi-mailako heziketa-zikloak, eskaintza partziala, heziketa duala, enplegurako formakuntza, zereginen gela... Algortako Fadura inguruan dago, garraio-zerbitzu publikoetatik hur. Irakas-baliabide eta instalazioei dagokienez, ikastetxeak kalitatezko ekipamendua eskaintzen du, eta ikasleen eta enpresen asebetetzea urte urte handitzen doa, horien beharri-zanei erantzunez.

Balioetan hezteka da ikastetxe horrek duen Hezkuntza Proiektuaren oinarria: etengabeko harrera lagunkoiaren, beti hizketa-giroaren, ulermenaren eta berdintasunaren alde agertzen da Fadura LHII. Ugaritasuna ikasteko aukeratzat hartuta, eta dibertsitateari eskainitako arreta da pertsonetikiko eta komunitatearekiko duen konpromisoa.

Modu berean, ikasleen prestakuntza-mailagatik, aukeran duen formakuntza-eskaintza zabalagatik, bertoko laneko segurtasunagatik eta ingurunearekiko konpromisoagatik, kalitate eta etengabeko hobekuntzarako kudeaketagatik eta Uribe Kosta eskualdean enpresa eta inguruaren erreferentzia izateagatik gura du jendeak Fadura ikastetxea ezagutzea. Horretarako aukera egongo da maiatzaren 17tik 26ra arteko ate irekien jardunaldian.



Hezkuntza-eskaintza

Goi-mailako Heziketa-zikloak

- Automatizazioko eta robotika industrial
- Fabrikazio mekanikorako produkzioaren programazioa
- Haur-hezkuntza
- Osasun-dokumentazioa eta administrazioa
- Gizarte eta kirol animazioko eta irakaskuntza

Erdi-mailako Heziketa-zikloak

- Telekomunikazioa-instalazioak
- Mekanizazioa
- Karrozeria
- Ibilgailu automobilen elektromekanika
- Erizaintzako laguntzailea
- Osasun-larrialdia

Eskaintza partziala osasun-larrialdietan

Zereginen gela

Lanean zein langabezia daudenentzat «Lanbide» ikastaroak

BirtLH: Lanbide heziketa birtuala osasun-larrialdietan

Lan-kompetentziak egiaztatze prozedurak

Informazio gehiago:

- Online: www.fadura.eus
- Idazkaritzan bertan ere, goizeko 08:30etik 13:30era arteko ordutegian.

Ate irekiak:

- Maiatzaren 17tik 26ra
- Aldez aurretik izena eman beharra dago.

Fadura
Ikastetxea

Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratua

Bizkerre z/g. 48991 - Getxo

JARDUNALDI IREKIAK:

Maiatzaren 27tik
maiatzaren 26ra (biak barne)

Apuntatzeko:

www.fadura.eus/ Ate irekien jardunaldiak

Zure etorkizuna hurbil

Berrikuntza, Aniztasuna eta Kalitatea

Berdintasuna eta Ingurugiro-iraunkortasun balioetan hezitzaileak

Praktikak atzerrian, irakasteko metodologia berriak, IKT heldutasuna

Tel. 944 069 000 - www.fadura.eus - fadura@fadura.eus



Mariñe Soto ADOS elkarteko pedagogo

«Gazteek baliabide gutxiago dituzte»

Gazte eta nerabe askok ez dituzte baliabide eta tresna nahikoak bizitzako erronka eta egoera batzuei aurre egiteko. Hori modu askotara adieraz daiteke, baita drogen edo pantailen erabileragaz ere. Sarritan, familien erantzuna konfrontazioa izaten da, horien ikuspuntua ulertu gabe.

ANDER ZARRAGA

Gazteen burutik pasatzen dena ondo ezagutzen du Mariñe Soto pedagogoak; izan ere, urteak daroatza gazte, guraso eta irakasleakaz lanean. Orain, pandemia bete-betean, gaztetasuna bezalako une garrantzitsuan garapenerako hain beharrezkoak diren eremu eta ihesbide asko galdu direla azpimarratu du, eta, dioenez, horrek zaurgarritasun egoeran areagotu ditzake.

Nola identifikatu daiteke gazte bat zaurgarritasun egoera batean dagoenean? Esan daiteke ahuldura momentu bat dela, besteeikiko nolabaiteko desabantaila egoeran kokatzen zaituzten baldintzen modukoak. Hala ere, ar-

«Ez gara zaurgarritasun sozialaz ari, bizitzak jartzen dituen erronkei aurre egiteko baliabide ezari buruz baizik»

gitu beharra dago ez garela zaurgarritasun sozialaz ari, norbere mailan sufritzen duenari buruz baizik; bizitzak jartzen dituen erronkei aurre egiteko baliabide eza bezala ere uler daiteke. Guk ikasgelaren esparruan kokatzen ditugu, beraz, elementu asko daude zaurgarritasuna adieraz dezaketenak: ikasgelan haurtuta edo inhibizioa bezalakoak izan daitezke; amorrua, liskarra edo frustrazioa, hain zuzen ere. Zaurgarritasun horren adierazgarri bezala har daitezke ikasketen emaitzetan adierazten dena. Horretaz gain, adin oso goiztiarretan droga kontsumoagaz hasten diren gazteak ere garatzen ditugu programak, hori ere zaurgarritasun adierazle garrantzitsua delako.

ENPRESEK GUREGANA JOTZEN DUTE



KIMIKA

ADMINISTRAZIOA
ETA GESTIOA

ELEKTRIZITATEA
ETA ELEKTRONIKA

ERAIKUNTZA ETA
OBRA ZIBILA

FABRIKAZIO
MEKANIKOA

INFORMATIKA ETA
KOMUNIKAZIOAK

INSTALAZIOA ETA
MANTENTZE-LANAK

MERKATARITZA
ETA MARKETINA

OSTALARITZA
ETA TURISMOA

LANBIDE HEZIKETAKO
IKASTETXE INTEGRATUA

**ELORRIETA
ERREKA MARI**

Aurre matrikula
maiatzaren 31tik
ekainaren 18ra

Lehendakari Aguirre
etorbidea, 184.
Bilbo

94 402 80 00
688 82 47 47-58

San Pedro plaza, 5.
Bilbo
94 475 11 17

 **ELORRIETA
ERREKA MARI** CIPP
LHII

www.elorrieta-errekamari.com



«Dituzte estresa kudeatzeko»

Pandemiak arazo hau larriagotu duela ikusi duzue? Bai, azkenaldian, larritasunez ikusten gabiltza 14-15 urteko gazteek baliabide gutxiago dituztela estres uneak modu egokian kudeatzeko. Nabaritzen dugu bizi-garapenean behar dituzten tarte batzuk kendu zaizkiela, sozializazioa eta kirola, batez ere. Ikastetxera etortzen dira, baina ez da berdina: ez dituzte denbora librean izango lituzketen bizipenak. Gainera, tristuraz ikusten dugu gaztetasunaren arauetikiko haustura hori erabili dela horiek erruduntzeko, kasu gehienetan euren jokabidea eredugarria izan denean. Gazteak mundura atera behar dira familiarengandik aldentzeko, eta pandemiak kontrakoa eragin du.

Nola eragiten dute teknologia berriek? Familia askok modu oso larrian bizi duten gauza bat dela kontatzen digute. Hala ere, uste dugu beraien bizi-garapenaren parte garrantzitsu bat ere dela hori; denbora-erregulazio bate-



«Begi bistakoa da pantailek tarte handiagoa lortu dutela, eta ez da nolanahiko kontua, kasu batzuetan kontrola guztiz galdu daitekeelako»

MARIÑE SOTO
PEDAGOGOA

gaz, noski. Askotan, familien pantailak etsai modura atzematen dituzte, eta egiten duten hurbilketa konfrontazioaren bidez izaten da, baina horrek ez du laguntzen beraien egunero-kotasunean nolako garrantzia duten ulertzen. Hortik, familiaren barne-harremanen planora salto egiten da, lortu gura dena fokutik aterata. Begi bistakoa da pantailek tarte handiagoa lortu dutela, eta ez da nolanahiko kontua, kasu batzuetan kontrola guztiz galdu daitekeelako.

Familiak nola identifika dezake zaurgarritasun arazo bat? Seme-alaben garapenean laguntzea ez da erraza, askotan ez garelako kontziente beraiek bere burua nola ikusten duten; hots, nola antzematen duten autoestimua. Esan ohi diegu ez direla besteen modukoak izan behar, baina azalean geratzea da, eta ez diegu galdetzen zergatik egiten duten zerbait. Pentsatu behar dugu nola ari den egunerokotasuna bizitzen, eta ez nola bizi beharko lukeen.

UDAKO IKASTARO TRINKOAK ETA BARNETEGIAK

A1, A2, B1, B2 ETA C1 MAILAK

MATRIKULA EPEA

UZTAILEKO IKASTAROAK: Ekain osoan

IRAILEKO IKASTAROAK: Ekain osoan eta uztailaren 30era arte

Informazio gehiago nahi baduzu:

Leioa · 944 64 60 63 · lamia@aek.eus

Getxo · 944 30 47 34 · lauaxeta@aek.eus

Plentzia · 946 77 36 07 · jentilbaso@aek.eus

Gorliz · 946 77 36 46 · jentilbaso@aek.eus



www.facebook.com/UribeKostako-AEK

www.aek.eus/blogak/uribekosta/

www.aek.eus



Betiko eta Ander Deuna ikastolak Ibilaldia 2021

«Auzolan izugarria da Ibilaldia antolatzea»

Gorabeheretz jositako pandemia-urte honetan, ezohiko Ibilaldia egingo dute maiatzaren 30ean. Leioako Betiko eta Sopelako Ander Deuna ikastolei egokitu zaie aurtengo jaialdia antolatzea, eta zeregin horren arduraduna den Ibilaldia Lantaldeak kontatu digunez, ez da erraza izan dena prestatzea; baina, aitortu dutenez, ikastetxeetako komunitateari esker aurrera eramatea lortu dute.

TESTUAK: IKER RINCON MORENO ARGAZKIA: HODEI TORRES ►

Iaz, pandemia bete-betean, ezinezkoa izan zen Ibilaldia ohiko moldean egitea. Zelan hartu zenuten ikastolek erabaki hori? Elo-rioko Txintxirri ikastolari egokitu zitzaion iaz Ibilaldiaren antolaketa, eta eurek bizi izan zuten egoera bere gordintasunean. Beste ha-maika kontu legez, bertan behera geratu zen Ibilaldia ere. Data aldatu eta urrira pasa bazu-ten ere, ezer gutxi egin ahal izan zuten. Beste horrenbeste gertatu zen Euskal Herriko gaine-rako ikastolen jaiekin. Horrela, bertan behera utzi behar horri erantzun bat eman guran edo, Ikastolak Herriari ekimena jarri zen martxan.

Aurten, egoera aldatu arren, baina, garai berri honetara egokitu behar izango duzue jaialdia, ezta? Guztiz gainera. Ez zaigu erraza izan jaialdiarekin aurrera egitea. Gure artean iritzi oso kontrajarriak geneuzkan zer egin erabakitzeko. Batzuen iritzian, ez zen unea halakorik antolatzeke, are gehiago euskara-ren aldeko zein beste mota batzuetako hainbat ekimen bertan behera geratzen zebiltzan ga-raian. Azkenean, baina, aurrera egitea erabaki zen. Eta aurrera egiteko erabakia hartu ordu-ko zer nolako Ibilaldia izango den pentsatzeari ekin zitzaion.

Zer-zelakoa izango da maiatzaren 30eko Ibi-laldia? Bada, ez du zer ikusirik izango orain artekoekin alderatuta. Ez dira milaka lagun

Aurtengo Ibilaldia ez da ohi bezalakoa izango. Arduradunek azaldu dutenez, maiatzaren 30ean ez dira milaka lagun batuko, ez da ibilbiderik egongo, guneetan ez da janari eta edaririk eskainiko eta parte hartzeko aurretiaz izena emanda egon beharko da.

batuko, ez da ibilbiderik ere izango, guneetan ez da janari eta edari zerbitzurik eskainiko, parte hartzeko aurretiaz izena emanda egon beharko da... Une horretan indarrean izango diren osasun-neurriak osotasunean betetzeko bideak ezarriko dira. Horrek guztiak beste Ibi-laldi bat antolatzea eskatzen du.

Egun horren aurretik, baina, bestelako hainbat ekimen ere egin dituzue ikastoletan eta Uribe Kostan. Zer egin duzue? Aurretik esan legez, oso berandu hartu genuen Ibilaldiare-kin aurrera egiteko erabakia, azaro aldean, hain zuzen ere; bospasei hilabete geneuzkan ia-ia guztia antolatzeke. Eskerrak 2020ko maiatzean leloa eta logoa erabakita gelditu zi-rela. Lehenbiziko gauza kanta egitea izan zen. Kantarekin bideoa, eta bideoa egiteko koreo-grafia bat asmatu zuten ikastoletako bizpahi-ru ikasle ohik. Gure lehenbiziko ekitaldia hori izan zen: koreografia jendetsua egitea bideoa grabatzeko. Horrela, martxoaren lehenengo hamabostaldian, Sopelan eta Leioan kanta eta bideoaren aurkezpenak egin ziren. Ondoren, apirilaren bigarren hamabostaldiko bi astebu-ruetan, Kultur Leioan eta Sopelako Kurtzion lehen hezkuntzako ikasleek prestatutako ber-tso-saioak programatu ziren. Halaber, data berdinetan, Sakonetan eta Ander Deuna ikas-tolan Bote-Luzea jokoa ezagutzeko eta prak-tikatzeko ekintzak egin genituen. Leioakoak

egin baziren ere, Sopelakoak bertan behera geratu dira pandemiaren eraginez. Modu berean, dolua lantzen duen bere azken ikuskizunarekin Sopelan izan zirenean, Pirritxek eta Porrotxek Intxaurren landare bat eman ziguten, hil diren senideen eta lagunen gogoan landatzeko. Asmo horrekin, apirilaren 25ean mendi-martxa antolatu genuen, baina hori ere bertan behera geratu zen pandemiaren ondorioz. Egun berean, arratsaldean, Sopelako kuadrillek antolatzen duten Korto Express lehiaketa eskaini nahi zuten Ibilaldiaren egitarauaren barruan, baina, oraingoan ere, bertan behera geratu zen. Maiatzaren 8an, aldiz, *Erraiak arbasoen oihartzuna* dokumentala izango dugu Romo Kultur Etxean. Maiatzaren 15ean *burnizko hesia* gauzatzeko asmoa daukagu; DBH-ko ikasleekin lantzeko beren-beregi prestatu den unitate didaktikoaren emaitza. Eta, maiatzaren 22an, «komunitatearen deia» egingo da, Betiko eta Ander Deuna ikastolak elkartuko duen irrintzi-kate erraldoia.

Bizi ditugun garaiak kontuan hartuta, Ibilaldiaren baloreak azaleraztea inoiz baino garrantzitsuagoa dela azpimarratu duzue behin baino gehiagotan. Zer dela eta? Ikastola, Euskal Herriko beste hainbat ekintza legez, herri-ekimena da, herritar askoren adorea, baliabideri eta ilusioari esker sortutakoa. Ibilaldia Bizkaiko ikastolak bultzatzeko asmoaz sortu zen, proiektuaren bideragarritasuna sustatzeko, proiektuarekiko elkartasuna adierazteko eta jendarteari ikastolen ekarpena aintzatesteko.

Zeintzuk dira, zehazki, Ibilaldiaren balore horiek? Ibilaldia aurrera ateratzeko lagun askoren beharra dago. Gehienak ikastolako –kasu honetan, ikastoletako–, komunitatea osatzen dutenak: gurasoak, langileak eta ikasleak. Baina baita herri-elkarte, udal, instituzio, taberna eta komertzioena ere, besteak beste; gizarte eragileena, oro har. Auzolan izugarria da Ibilaldia. Elkarrekin aritzea eskatzen du. Proiektuarekiko ilusioaren eta inplikazioaren erakusbidea da.

Zer da Ibilaldi bat antolatzea zuentzat? Lantaldeak antolatu izan dira eginkizunak banatuz. Horrela, kultur ekitaldien antolaketaren ardura izan duen lantaldeak argi izan du hasiera-hasieratik Ibilaldiak zer eskaintza kultural egin behar zuen, baita zertan oinarritu behar zuen ere. Hala, maiatzaren 30eko jaia- ren emaitzari baino ordura arteko bideari, prozesuari, eman dio garrantzia bereziki. Horrek, ikastoletako komunitatea eta eragile sozialak prozesuan bertan inplikatzeko eskatzen du.



Ibilaldia 2021 jaialdiari anto



Komunitateak egindako lana, ezinbestekoa

Arduradunek diotenez, ikastolek osatzen duten komunitatearen lana beharrezkoa izan da Ibilaldia aurrera eramateko. Besteak beste, bideoklipa egiteko parte-hartzea handia izan da.

Betiko eta Ander Deuna trebeak dira ikastolen aldeko jaialdiak antolatzen, aurtengoa ez baita horretarako lehenengo aldia... Garai horietako zeintzuk oroitzapen gordetzen dituzue? 1990ean egin zen Sopelan Ibilaldia. Parte-hartze handia izan zuen, eta egun hori oso gogoan dute bertan izan zirenek. 1997koa, aldiz, oso garrantzitsua izan zen Betiko ikastolaren biziraupenerako, bai baliabide ekonomikoak lortze aldera, baita Leioa, Romo eta Erandion «Betiko ikastola» izena bera ezagutzera emateko ere. 2004an eskualde ikuspegia landu nahi izan genuen Ander Deuna ikastolatik, hau da, elkarrekin eskualdeari begirako proiektu komunak bideratzea. Halaber, Betiko ikastolan bigarren lerroa irekitzea eta azpiegiturretan inbertsio garrantzitsuak egin nahi ziren. Jendetsua izan zen, ehunka lagunek lan egin zuten guztia aurrera ateratzeko, eta gehiago estutu ziren gure arteko harremanak. Egun horretan, Kepa Butron Betikoko zuzen-



latzeko beharrezkoa izan dira Ander Deuna eta Betiko ikastoletako komunitateak osatutako lantaldeak.

dari izandako lankidea zendu zen, eta gogoan daukagu hori.

Asko aldatu dira ikastolak ordutik hona? Bai. Instalazioei dagokionez, ikasle kopuruei dagokionez, bertako komunitatearen osaerari dagokionez... Gu aldatu gara, eta gizartea ere aldatu egin da. Betikon, esate baterako, lehen lerro bakarra geneukan adin gehienetan, eta zenbaitetan, DBHn batez ere, oso talde txikiak genituen: 6 edo 7 ikaslekoak. Gaur egun, guztira, 700 bat ikasle eta ehunetik gora langile daude; atera kontu zenbat aldatu garen! Lan egiteko modua ere aldatu da; proiektu pedagogikoa guztiz berritu da, eta Euskal Curriculumean eta konpetentzietan oinarritutako proiektua errealitate bilakatu da.

Ikastolen eredua indartu beharra dagoe-la uste duzue? Indibidualizazioak eta materialismoak pisu handia hartu dute gure gi-

**«Kalakalata!»
«Inplikatzeta, bustitzea,
konprometitzea
adierazi nahi genuen
lema horrekin;
euskaraz bizitzeko
bustitzea, hain zuzen»**

**Hazkundera
«Urtez urte, Betiko
eta Ander Deuna
ikastolak handitu egin
dira, bai instalazioei
dago-kionez, baita
ikasle kopuruari
dago-kionez ere»**

zartean. Ikastolen sorrera bera beste balore batzuetan oinarritu zen, beste muturrean; herritarren elkarlana, baliabide pertsonal eta materialen borondatezko ekarpena, elkartasuna, gizarte ekonomia solidarioa, komunitatearen onura bilatzen zituztenak. Balore horiek, beste era batean beharbada, egon dira gure artean ere. Gainera, talde moduan, curriculumean, arlo pedagogiko-didaktikoan, materialgintzan, ekarpen interesgarriak egingabiltza, besteak beste.

Zeintzuk helburu jarri dizkiezue zeuen buruei Ibilaldi honekin? Helburu ekonomikoei dagokionez, egia esan, oso apalak dira oraingo honetan; izan ere, azaroan erabaki genuen aurrera egitea. Hala, bost bat hilabetetan zaila da ganorazko ezer planteatzea arlo horretan, eta are zailagoa bizi dugun egoera kontuan hartuta. Kontuak horrela, komunitatearen trinkotzea, elkar ezagutzea, entzutea eta elkarrekin bide bat egitea beti dira ekarpen interesgarriak. Beste horrenbeste gizarte-eragileen laguntza eta elkartasuna sentitzea. Horixe da bilatzen duguna oraingoan.

Jaialdiak «kalakalata!» leloa izango du. Zergatik? 2020ko urte hasieran leloa eta logoa pentsatzen hasteko deialdia egin genuen bi ikastoletan. Hainbat bildu ginen; ikasleak, gurasoak eta langileak. Talde dinamika batzuen bidez ideiak, marrazkiak eta esaldiak jasotzeko aukera izan genuen. Horiek guztiak bildu, eta talde txikiago batean lantzen hasi ginen. Hamaika ideia lelorako eta beste hamaika marrazki logorako. Eta horrela, multzokatzen joan ginen; inplikatzeko eta bustitzeko ideiarekin, haurren jolasekin lotutakoak, elkarrekin aritzera deitzen zutenak, euskara erabiltzeari erreferentzia edo deia egiten ziotenak... Azkenean, «kalakalata» hartu genuen, inplikatzeta, bustitzea, konprometitzea adierazi nahi duena; euskaraz bizitzeko bustitzea, batzuetan deserosoa ere egin ahal zaigun arren.

Abestia eta horren bideoklipa egin duzue. Zelakoa izan da esperientzia? Uste dugu hasierarik egokiena izan dela hori. Bertan parte hartu dutenen aldetik hitz onak besterik ez dago; zein ondo pasa duten, pandemiarekin buru makur egotetik bat-bateko ilusio leherketata bat izan dela, mundu guztia kantan eta dantzatan aritu dela. Esperientzia ezin hobea.

Nolakoa izango dela aurreikusten duzue aurtengo Ibilaldia? Kanpora begira, pandemiak emango duen aukeraren arabera. Barrura begira, bada, orain artekoarekin, besterik ez bada ere, merezi izan duela esan genezake. ◀

Ayoub Mazar Algortako Gaztelekuko arabiar irakaslea

«Kalean dauden gazteek aukera bat bakarrik behar dute motibazioa lortzeko»

ANDER ZARRAGA ►

Duela urtebete heldu zen Bilbora Ayoub Mazar 22 urteko gazte marokarra. Hasiera oso gogorra izan zuen: kalean bizi behar izan zen denboraldi batez, baina, aitortzen duenez, bere irmotasunari eta Agharas elkartearen laguntzari esker, aurrera ateratzea lortu zuen. Orain, arabiar klaseak ematen ditu Algortako Gaztelekuan, eta, gainera, euskara ikasten ari da, baita etorkinen errealitatea ikustarazten duen Eskutik Eskura ekimenean lan egin ere.

Nondik dator arabiar hizkuntza irakasteko klaseak eskaintzearen ideia? Kalean bizitzen ari nintzenean, Barakaldoko Agharas elkar-tea ezagutu nuen. Horiek laguntza eman zidaten bertakotze-prozesuan, eta erakundean boluntario gisa hasi nintzen lan egiten, ni bezala kalean bizi diren beste gazte batzuei laguntza emateko. Horrela, Eskutik Eskura egitasmoan parte hartzen hasi nintzen; eskoletan etorkinen esperientzia kontatzen, hain zuzen ere. Horren harira, Getxora etorri ginen bertako boluntarioakaz hitzaldi bat ematera, eta, bertan, zinegotziagaz elkartu ondoren, Gaztelekuan arabiar klaseak emateko proposamena egin zidan. Niretzako esperientzia ederra izan zitekeela pentsatu nuen; bizitza berri bat hasteko aukera nuela ikusi nuen.

Nolakoak dira ematen dituzun klaseak? Eguaztenetan egiten ditugu, arratsaldeetan, eta bederatzi ikaslek osatzen dute taldea. Horien artean denetarik dago, etorkinak ere bai; horrek asko aberasten ditu klaseak, bakoitzaren bizipenak kontatzen ditugulako. Arabiera ikasteaz gain, Marokoko kultura ezberdinak, gastronomia edo etorkinen errealitatea ere aztertzen ditugu. Gainera, klaseak aspergarriak ez izateko, egunero gauza ezberdinak egiten saiatzen naiz, tailerrak eta horrelakoak, besteak beste.

Coach profesionala ere bazara. Baina, zer da hori? *Coaching*-a motibazio pertsonalagaz lotuta dago, eta horren helburua da jendearen eragitea, hau da: motibazioa sortzea. Nik hori klaseetan erabiltzen dut ere, ikuspegi positibo batetik abiatzeko. Adibidez, jende asko dago bizitzan inolako helbururik ez due-



Mazar-ek eguaztenetan ematen ditu klaseak Algortako Gaztelekuan. HODEI TORRES

«Niretzako esperientzia ederra izan zitekeela pentsatu nuen; bizitza berri bat hasteko aukera nuela ikusi nuen»

na, gaur gaurkoz bizitzen dena, etorkizunera-ko planik gabe dagoena. Bada, *coaching*-aren bitartez horri irtenbide bat ematen saiatzen gara. Etorkinak diren gazte asko dago galduta, eta Marokon ikasi nituen *Coaching* baliabideak erabiltzen ditut motibazio hori ematen saiatzeko, gazteek euren helburuak finka ditzaten. Azken finean, kalean dauden gazte horiek aukera bat bakarrik behar dute motibazioa lortzeko. Batez ere ikasi dut hori nola transmititu behar den, eta, hori baliatuta, etorkin gazteakaz berba egiten dut, horiek ere motibatzen.

Agharas erakundeagaz egiten duzu lan, zein da bere helburua? Barakaldoko Imazhigen edo bereberren kultur elkartea da. Hainbat ekintza antolatzen dituzte, besteak beste, kalean bizi diren etorkin gazteei laguntza ematen diete; adibidez, egunero prestatzen ditugun afarien arduraduna naiz ni. Etorkin gazteei denboraldi baterako geratzeko toki bat ere eskaintzen die elkarreak. Horretaz gain, arabiar, gaztelera eta euskara ikasteko klaseak ere eskaintzen dituzte, eta ni bertan nago euskarari trebatzen. ◀

Jokin Trikitixa



TESTUA: ASIER BARRUETABEÑA RIVALLO
ARGAZKIA: JOKIN SAN JOSE ▶

Kupel-usain mindua, potoz betetako bertso eta intxaur-gazta artean jaiotakoa izan arren, Algortako gizaseme honek, Muguruza balitz bezala, AEBetako New Yorkeko Bronx auzoan jaiotako doinuekin nahasten du trikitia. Bere estilo bizia, Berri Txarrak taldeak esan bezala, hiru hitzetan laburtu daiteke: «Jaio, folklorea, hil...». Edo horrelako zer bait.

Nor da Jokin Trikitixa? Jokin Trikitixa, Jokin San Joseren alter ego musikala da. Beste pertsonai asko badaude Jokinen barruan, baina oraindik ez dira eman ezagutzera.

Noiz hasi zinen trikitia jotzen? Zelan ikasi zenuen eta zelan animatu zinen horretan? Ez dut inoiz esaten noiz hasi nintzen trikitia jotzen, ni baino urte gehiago daramaten ikasle asko ditudalako, eta horrek, agian, txarto sentiarazten ditu. Ni orain klaseak ematen nabilen lekuan hasi nintzen ikasten, Algortan. Betidanik gustatu zait trikitia, eta, bat-batean, animatu nintzen ikastera. Horrek duen zailtasunak asko erakartzen nau, baita duen sonortateak ere; horregatik aukeratu nuen.

Askok Youtuben igo dituzun bideoengatik ezagutu zaitugu. Esan daiteke hori izan dela zure sorrera? Bai, nire sorrera izan zela esan daiteke, noski. Horrek bideratu ninduen se-



Proiektu berriak

«Proiektu batzuk ditut buruan, eta, musikaren munduan ere, baditut beste batzuk. Abesti berriak konposatu ditut, eta, oraingoan, trikitia *Dancehall* estiloarekin zelan nahasten den ikertzen hari naiz; izan ere, etorkizunean, agian, horrekin lan egiteko asmoa dut».

rioski lan egitera; bizitzan galduta nengoen garaia zen hori. Orain, denbora nahiko daramadan arren hara bideorik igo gabe, bideo gehiago grabatzeko asmoa dut.

Beste proiektu oso ezberdin batzuetan ikusi zaitugu rapean murgilduta. Kontaiguzu apur bat... Bai, orain pare bat urte nire lehen diskoa kaleratu nuen Durangoko Azokan, trikitia eta *hip-hop* estiloak nahasteko asmoz. Nik gehien kontsumitzen eta jorratzen ditudan bi estiloak batu nahi nituen, ez delako horrekin askorik egin orain arte. Nerabezaroan rap asko entzuten nuen, eta, gaur egun, aldiz, trikitia gehiago; nire iraganeko eta gaur egungo musikak nahastu nahi nituen. Argi nuen ez nuela egin nahi beste trikiti-disko tipiko bat; horretarako beste guztiak daude eta. Zeozer berezia nahi nuen, *temazorik* gabekoa, baina desberdina.

Gaztea Maketa Lehiaketako finalean ikusi zintugun. Espero al zenuen? Ez nuen espero, nire diskoa hara bidali nuelako zeozer egitearren, besterik gabe. Finalera sartzeko botoak jaso behar nituen, eta, ez nionez lanari inolako promoziorik egin, ez nuen espero inora heltzea. Baina, bertan dauden epaileen botoak ere kontatzen zuten, hau da, talde batzuk bozkatuenak izateagatik sartzan ziren finalera, eta beste bat edo bik epaileek hala erabakita. Horrek pilo bat poztu ninduen. Hala ere, edozein txapelketan bezala, tentsio-uneak pasa nituen, denbora asko dagoelako tarteko. Hala ere, oso esperientzia elikagarria izan zen. ◀

Naiomi Matthews Borroka-kirolaria

«Urrezko bi dominak lortzea espero nuen, baina pozik nago emaitzarekin»

Seigarrenez Estatu mailan urrezko domina bere egin ondoren, Poloniatik itzuli da urre eta brontze banagaz, Munduko Txapelketan berriro ere podiumera igotzeko asmoz.

IKER RINCON MORENO ►

Orain gutxi *grappling gi* –kimonoa-gaz– eta *grappling* –kimonorik gabe– modalitateetan Espainiako txapelketa izendatu ondoren, Varsoviako Poloniako hirian apirilaren 24tik 28ra egindako Europako Txapelketetan arrakasta izan zuen berriro Naiomi Matthews borrokalari getxoizarrak. Izan ere, urrezko domina lortu zuen *grappling gi*-n, eta brontzezkoa, *grappling*-ean, 53 kiloko kategorian biak. Orain, munduko txapelketan arrakasta horiek errepikatzeko lanari ekingo dio.

Ez da lehenengo aldia getxoizarra orriotan agertzen dena; izan ere, bere ibilbidea arrakastatsua izan da azken urteotan. Orain gutxi Espainiako Txapelketan urrezko domina jantzi zuen, seigarrenez, eta, handik gutxira, Poloniara egin zuen salto, kontinente-mailan gailentzeko borrokatzera. Oraingoa bosgarren aldia izan da Europako *grappling* borroka-kiroleko txapelketan parte hartzen duena. Izan ere, iaz ere domina bi jantzi zituen, urrezko eta brontzezko bana, eta aurreko urrezko bigaz bueltatu gura bazuen ere, pozik dago lortutako emaitzakaz: «Txapelketa ona egin nuen», dio borrokalariak. Aitortzen duenez, COVID-19ak eragindako pandemiak urduritasuna areagotu dio, berton entrenatzeko gabeziak direla eta ez direla, ez zekiela nazioarteko kirolariak zelan entrenatzen zuten.

Gutxira, 12 lehiakidek parte hartu zuten txapelketan, eta launa borrokaldi gairiditu behar izan zituen podium bietara igo ahal izateko. «Borrokaldi guztietan ondo sentitu nintzen; horrek erakutsi ahal izan dit egoe-



Borroka-kirola bizitzeko modu bat da Matthewsentzat. NAIOMI MATTHEWS



Apirilaren 10 eta 11n izandako Espainiako *grappling*-txapelketako garailea izan zen ere.

rak laguntzen ez duen arren entrenamenduak ondo egin ditugula». Hala ere, aitortzen duenez, zaila egin zitzaion final-laurdenetako borroketako bat; horretan, aurrez aurre egin zuen topo berriro Svitlana Skrypnik ukrainiarraz, hots, faboritua zen borrokalarietako bat –aurreko urtean ere bere aurka borrokatu behar izan zuen getxoizarrak–.

Orain, garaipenok giltzapean gordeta dituela, urrian egitekoa den Munduko Txapelketara begira dago Matthews. Horretan Europako egindako lana errepikatzeko asmoa du borrokalariak, eta, ahal izatekotan, horiek hobetu: «Gustatuko litzaidake urrezko bi dominak lortzea horretan». ◀

Beatriz Lalaguna Sopela Women's Team taldeko txirrindularia

«Emakume txirrindulari gehiago ikusten dira»

Beatriz Lalagunak triatloitik errepedeko bizikletara egin du salto, eta Sopela Women's Teamean hasi da aurten. Beragaz egon gara esperientziaren berri emateko eta taldea hobeto ezagutzeko.

ANDER ZARRAGA ►

Triatloiaren mundutik dator Beatriz Lalaguna, Gasteizen jaioa, baina Sopelan bizi den kirolaria. Pandemiaren eraginez, errepedeko txirrindularitza probatu zuen eta, orain, triatloiakaz jarraitu arren, Sopela Women's Team taldean ari da lanean.

Triatloietan hasi zen 2014an, baina, lezio baten ondorioz, bizikletari eutsi dio batez ere. Dioenez, triatloiko hiru kiroletatik –korrika, igeriketa eta txirrindularitza–, gurpildun bikoan ibiltzea da gehien erakartzen duena, «beraz, horretan zentratu nintzen». Hasiera batean, Sopelako taldera batzeko proposamena egin ziotenean, zalantzak izan zituela aitortzen du, baina Larrabasterrako lasterketan, bera bezala, triatloietan ibilitako lagunak ikusi eta Emilio Ramos taldearen arduradunagaz egon eta gero, probatzea erabaki zuen, «pandemiaren ondorioz ez zegoen triatloirik, eta gogoakaz ez geratzearren, horretan sartzea erabaki nuen». Baina bera ez da azkenaldian triatloietatik errepedeko bizikletara pasatu den bakarra; Ainara Arroyo eta Andrea Mediero –honek duatloiak egiten ditu– bizkaitarrek bide bera egin dute.

TALDE GAZTEA. Taldekideak oso gazteak direla dio, eta bera dela lasterkaririk nagusia; izan ere, gainontzekoak 18 eta 24 urte bitartekoak dira: «Denetarik dago taldean, baina adinari dagokionez, nagusia ni naiz, gero nire pareko beste bi daude, eta gainontzekoak oso gazteak dira». Hala ere, bere ustez, hori ez da gehiegi nabaritzen: «Azken finean, bizikleta gainean gaudenean denok eragiten diegu pedalei, eta talde-lana da garrantzitsuen». Taldekide horien artean asko Valentziakoak direla dio; izan ere, Francisco Pla zuzenda-



Lalagunak triatloia eta errepedeko bizikleta tartekatzen ditu. HOEDEI TORRES

Nola dago emakumezkoen txirrindularitza?

«Esango nuke geroz eta gehiago ari dela ikusten; ikusgarritasuna eta presentzia irabazi du, bai komunikabideetan eta baita babesleen aldetik ere. Errepidean ere geroz eta emakume gehiago ari dira ikusten. Esango nuke Movistar taldeak eta Eider Merinok bultzada handia eman diotela kirolari. Gainera, ez da ahaztu behar eskolek horretan izan duten zeresana ere»

ri teknikoa hangoa da, eta ezagutzen dituen hainbat kirolari ekarri ditu Sopelara, taldea osatzeko. Horieta gain, Estatuko beste lurralde batzuetako eta gure inguruko txirrindulariak ere badaude, baita atzerriko txirrindulariak ere, hala nola Claire Steels eta Molly Patch britainiarrak. Aurten talde oso lehiakorra osatu dute, eta aipatutakoez gain, bertan daude Naia Amondarain, Maria Banlles, Emma Ortiz, Sofia Rodriguez, Ines Cantera eta Ane de Pablo, besteak beste.

Taldea berebizikoa da kirol horretan, izan ere, dioenez, triatloiaz konparatuta, talde-lanak askoz ere garrantzia handiagoa du txirrindularitzak, «entrenamenduetan pelotoiaren barruan egon behar gara, ahal bada horren buruan eta dena ematen; triatloia, al-diz, askoz ere indibidualagoa da».

COVID-19aren ondorioz, egutegia oso aldakorra da, ez dakite lasterketarik egongo den aurreko astera arte, eta hainbat txapelketa bertan behera geratu dira, «oso egutegi gorabeheratsua da, gainera, ez ditut triatloiak gutiz utzi, eta iazkoak ere egiten ari naiz». ◀

04 OBJEKTIBOAK

Foku-luzera eta ikusangelua

Objektiboen mundua zabala da, eta gure nahien arabera erabaki beharko dugu zein foku-luzera den egokiena gure argazkietarako. Horretarako, ikusangelua eta haien beste ezaugarriak ikusiko ditugu.

Objektiboa

Argi izpiak sentsorerara bideratzen dituen optika sistema da. Forma ganbileko lente bat edo gehiago ditu, fokua izeneko puntu batean zeharkatzen duten argi izpiak proiektatzen dituen. Kameragaz enfokatzen dugunean, foku-puntua kameraren sentsoreagaz bat etorrarazi behar dugu, irudi garbia lortzeko.

Foku-luzera eta ikusangelua

Lente baten distantzia edo foku-luzera da lente baten zentro optikoaren eta irudia jasotzen den fokuari (edo foku-puntuaren) arteko distantzia (kamera digitaletan, sentsorean). Objektiboen sailkapena foku-luzeraren arabera egiten da. Foku-luzera milimetrotan neurtzen da (mm), baina ez digu adierazten kameraren eta subjektuaren arteko distantzia fisikoa. Lentearen gehikuntza-propietateei dagokie, hau da, lentearen zentro optikoaren eta gure kameraren sentsorearen arteko distantziari.

Full-frame edo biderkatze-faktorea

Kontuan izan behar dugu beti biderkatze-faktorea. Ikusi dugun sailkapena argazki analogiko edo 35 mm-ko (*full-frame*) tamainako sentsoreetan oinarrituta dago, hau da, karrete-filmek betidanik izan duten tamainarako. Baina, argazkigintza digitalean sentsore guztiek ez dute tamaina bera, eta gure foku-luzera 35mm-ko oinarrietan zenbatekoa den jakiteko, eragiketa bat egin behar dugu. Adibidez, gure kamera digitalean 12-60 mm-ko objektibo bat muntatuta badugu eta gure sentsorerako biderkatze-faktorea «2x»koa bada, foku-luzera faktore horrekin biderkatzen dugu; beraz, 24-120 mm-ko objektiboarekin ari gara. Horrek gure objektiboaren benetako ikuspegiaren angelua ezagutzen lagunduko digu.


Enfokatzeko gutxieneko distantzia

Enfokatzeko gutxieneko distantzia: hurbilen enfokatu daitekeen distantzia da. Distantzia horretatik beherako argazki bat egiten saiatzen bagara, objektiboak ezingo du enfokatu, eta irudia lausotuta aterako da.

Ikusangelua



Foku-luzera



Sailkapena

6-18mm Fisheye (arrain-begia)

Ikusangelu maximoa ematen dute, 180 gradutara iritsiz. Oso irudi ikusgarriak eta deformatuak sortzen dituzte. Askotan, ertzak ilun edo beltz agertzen dira.



<24mm super angeluhandiak

Ikusangelua giza ikusmenarena baino handiagoa da. Ez da arrain-begietan bezain zabala, baina ia. Argazkiak ere deformatuta ateratzen dira.

24-35mm angeluhandiak

Gure argazkiei errealismo handia eskaintzen diete, ia guztia enfokatuta atera baitezakete, hau da, eremu-sakonera handia dute. Kontuan izan behar da zenbat eta gehiago hurbildu objektu bat kamerara orduan eta distortsionatuago egongo dela. Eremu irekietan erabili ohi dira, paisaia, arkitektura edo barruko gunetan, eta objektibo nahiko argitsuak izaten dira.




50mm estandarra

Giza ikuspegiagaz antz handiena duenez, ikasteko gomendatzen da. Objektibook sortzeko sinpleagoak direnez, merkeagoak izaten dira, eta kalitate eta argitasun handia eskaintzen dute. Erretratuko argazkigintzarako asko erabiltzen dira, diafragma oso irekiak dituztelako, eta horrek eremu-sakoneko murrizten laguntzen du, erretratuari garrantzi handiagoa emateko.



>70mm teleobjektiboak

Foku-luzera handienak dituztenak dira. Planoa asko ixteko aukera ematen digute, fisikoki hurbildu behar izan gabe. Ezinbestekoak dira kirolen eta naturaren argazkigintzarako, adibidez.



Makro / Mikro

Enfokatzeko gutxieneko distantzia oso baxua dute, hortaz, asko gerturatzeko aukera ematen dute. Distortsio gutxien eskaintzen dutenak dira. Intsektu edo objektu txikien argazkigintzarako aproposak dira.



Finkoa ala zooma?

Jakin behar dugu fokal finkoak, aldakorrak edo zoomak daukela. Finkoek foku-luzera zehatza baino ez digute ematen; adibidez, 50 mm-ko objektiboa. Zoomak, aldiz, foku-luzera aldatzeko aukera ematen digute, adibidez, 24-120 mm, objektiboa aldatzen ibili beharrik gabe. Orokorrean, objektibo finkoek kalitate gehiago ematen dute, baina kalitatea objektibo bakoitzaren eta bere ezaugarrien arabera da.

Kalitatea

Osatzen duten materialen eta lenteen arabera da objektiboen kalitatea. Zenbat eta hobea izan lentearen kalitatea, orduan eta garestiagoa izango da. Manualak edo auto-fokukoak izan daitezke; gaur egun, ia guztiak auto-fokukoak dira, eta oso azkar eta ondo funtzionatzen dute.

Batzuek, gainera, egonkortzaile optikoa dute, eta horrek garestiagoak izatea eragiten du.

Filtroak

Askotan filtroak erabiltzen dira objektiboetan, gehienetan babes bezala. Baina badaude ere polarizadoreak eta beste-lakoak.

Hurrengo hilabetea:

Koloreak eta beren erabilera

Hirukira olgetan

© GARBIÑE UBEDA

SOLUZIOAK:



Ikusi-makusi

Horra gure aitona-amonen aitona-amonek beren haurtzaroan landatutako zuhaitza. Ikaragarri handitu da, ezta? Eta gainera, paisaiaren antzaldaketaren lekuko isila izan da. Ezer ez da lehen bezalakoa, baina badira hainbat elementu bi irudietan ageri direnak. Bederatzi dira. Ikusten al dituzu?



Hagina



Haritza



Pikondoa



Intxaurrondoa



Astigarra



Hurritza



Gorostia



Gaztainondoa



Pagoa

Labirintoa



Etxe-txolarreak beheko teilatupean egin nahi du habia. Lagun iezaiozu haraino heltzen. Horretarako, habia egiteko baliatuko dituen elementuak jarraitu beharko dituzu, orden honetan: belarra (1), hosto lehorra (2), lastoa (3) eta luma (4). Gogoratu laukiak banan-banan aurreratu behar direla, ezker, eskuin, gora edo behera eginez, baina inoiz ez diagonalean.



Aurkitu duzu bidea? Hala bada, laukiz lauki pasa dituzun hizkiak batu eta esaera zahar bat osatuko duzu:



Pareak bai!

Afrikako animalia ugari ezagutzen duzu. Froga ezazu orain, zenbat dakizun zure inguruko zuhaitzei. Lotu zuhaitz bakoitzari dagokion fruitua.





Orotarikoa

Euskaltzaindiaren Hiztegia denok ezagutzen dugu. Haren onlineko bertsioa esku-eskura dugu behintzat. Hiztegi hori 1991n hasi zen osatzen eta 2015ean amaitu. Hitz kopuru aldetik, 40.000 **sarrera** inguru ditu, 10.000 bat **azpissarrera** eta ia 70.000 **adiera**. Eta, egia esan, oso tresna eraginkorra da Euskaltzaindiak onartutako, hobetsiriko eta baztertutako hitzen grafiak behin-behingoan ezagutzeko. Izan ere, Euskaltzaindiaren Hiztegia **arauemailea** dugu, ez **orobiltzailea**, hots, bete beharreko arauak ezartzen ditu, gustatu zein ez. Batzuetan ni kritiko samar agertzen naiz hiztegi horrek egindako zenbait hauturekin, baina arau horiek, batuaz ari garela, errespetatu beharra dago, gure hizkuntza nazionala **lorrinduko** eta degradatuko ez badugu.

Bada hiztegi horrek badu beste kide nagusiago bat: Orotariko Euskal Hiztegia. Orotarikoaren helburua euskararen aro eta euskalki guztietako lexikoa jasotzea eta antolatzea da. Paperezko bertsioak 16 liburuki ditu, 1987 eta 2005 urteen artean argitaratutakoak. Koldo Mitxelena ekin zion alorrari, eta Ibon Sarasolak eman zion amaia. Esan beharrik ez dago hiztegi honek askoz hitz gehiago dakarrela Euskaltzaindiaren Hiztegia izenekoak baino, arauemailea barik, orobiltzailea baita. Guztira, ia 150.000 sarrera ditu eta ia 60.000 azpissarrera. Gainera, idazle askoren aipuz, adibidez eta argibidez josita dago (530.000 adibide dakar). Kasurako, Uribe Kostan tximeleta esateko erabiltzen dugun **txirpilate** berba ederra ez duzu Euskaltzaindiaren Hiztegi arauemailean topatuko, baina bai Orotarikoan. Orain, apurka-apurka, Orotarikotik arauemaileko igarotzea kudeatu behar da, gure hizkuntza-aren aberastasun zoragarria alferrik gal ez dadin.

Erreferentzia moduan esango dugu *Oxford English Dictionary* hiztegi orobiltzaile mitikoak ingelesaren 700.000 sarrera biltzen dituela. Gu **oraindikarren** hortik **asago** gaude, baina gero eta **parajeago**! ◀

Berba azoka

Sarrera

Hiztegiez dihardugula, aurkezten diren hitzetako bakoitza, barnean azpissarrerak eta adierak biltzen dituena.

Azpissarrera

Hiztegiez ari garela, sarrera barruko atala, esapide edo hitz elkartu bati dagokiona eta paragrafo bat eratzen duena.

Adiera

Hiztegiez gabiltzala, hitz baten esanahietako bakoitza; batez ere, bat baino gehiago dituenen.

Arauemaile

Hiztegiei gagozkiola, arautzailea, arauak ematen dituena.

Orobiltzaile

Hiztegiaren denaz bezainbatean, oro biltzen duena, hau da, lehengo eta oraingo hitzak batzen dituena, dialektoetakoak barne.

Lorrindu

Hondatu, alferrik galdu..

Txirpilate

Tximeleta, pinpilinpauza, inguma, kalapitxi...

Oraindikarren

Oraindik, oraino, ondino.

Asago

Urrun, urruti.

Paraje

Hur, hurbil.



hirukalagunen txokoa

Sari ederrak eskura!

Lehiaketa Non dago?


Argazkian ikusten den Uribe Kostako txokoa zein den igartzen baduzu, beheko ikuskizun bietako batez goatzeko aukera izango duzu.

Sopelako Kurtzio Kultur Etxearen ekimenez, beheko ikuskizunetako batez goatzeko sarrera bikoitz bana irabazi gura baduzu, maiatzaren 12a (eguztzena) baino lehenago bidali erantzuna, irabazi gura duzun ikuskizuna, zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Sariak

Adela eta Martirio Bernarda Albaren Etxean



La casa de Bernarda Alba oinarritutako antzezlan. Lorcareen klasikoa gaur egun nola ulertzen dugunera hurbilduko dute maiatzaren 14an, barikuan, Sopelako Kurtzio kultur etxera. Saioa 19:00etan hasiko da.

Willis Drummond



Musika taldeak «Garai bereziendako kontzertu berezia» eskainiko du ekainaren 4an, barikuan, Sopelako Kurtzio kultur etxean, 17:30etik aurrera.

Zozketa

Ibaizabaleko liburuak eskura!

Ibaizabal argitaletxearen eskutik, sei urtetik gorako umeentzako liburu-sorta aparta zozkatuko dugu oraingoan. Hirurak eskuratu gura badituzu, ez galdu aukera!

Zozketan parte hartu gura baduzu, maiatzaren 23a (domeka) baino lehenago bidali zure izen-deiturak eta harremanetarako bidea hona: hiruka@hiruka.eus edo 944 911 337.



Zelan egin HIRUKA lagun?

Webgunean: hiruka.eus/harpidetza/laguna
Idatziz: hirukakoop@hiruka.eus
Deituz: 944 911 337 • 688 812 368

Urtean 35 euroren truke, Uribe Kostako euskarazko komunikazio-taldearen bultzatzailea eta partaidea izango zara.



Etxean jaso nahi baduzu

egin zaitez **HIRUKA**lagun!



944 911 337 | 688 812 368 | administrazioa@hiruka.eus

